



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

PRACTICUMENKO PROZESUAK HARREMANAK SORTZEKO GAITASUNEAN DUEN ERAGINAREN AZTERKETA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Elosegui Ruiz de Larrea, Estibaliz.

ZUZENDARIA: Santamaria-Goicuria, Imanol.

2019-2020

Laburpena

Ikerketa-lan honetan practicumak bere osotasunean duen garrantziaz gain, practicuma bideratzeko mintegietan metodologia aktiboen erabilpenak duen eragina azaleratzen da. Lehenengoaren egunerokoei esker eta bigarrenaren inguruan egindako hausnarketek, pertsona zein irakasle moduan sentitutako emozioak eta horiek nire harremantzeko gaitasunean izan duten eragina dira lan honen protagonista. Hori dela eta, lan honek, emozioak, harremanak, hausnarketaren garrantzia, kontzientzia... bezalako gaiak erakutsiko ditu, irakasle lanbidea hautatuz gero, horietan bete-betean murgilduta egotea saihetsezina izanda. Lan honen helburu nagusia, practicumeko mintegietan metodologia aktiboak erabiltzeak nire konpetentzia emozionaletan, bai eta nire harremanak sortzeko gaitasunean duten eragina aurkeztea eta aztertzea izan da. Lan hau aurrera eramateko erabili den metodologia, autoetnografia izan da, aurretik aipatu bezala practicum osoaren egunerokoek eta mintegien inguruko hausnarketek posible egin dutena. Ondorioek ematen diote bukaera lan honi, eta zati honetan, prozesu osoaren iritzi pertsonala bai eta nire gain izandako eragina ageri da, lan honetan zehar jorratu diren gai guztien balorazio pertsonalaz gain, pertsona zein profesional moduan lan honek nire barnean aldatu duena.

Hitz gakoak: practicuma; metodologia aktiboak; emozioak; harremanak.

Resumen

En el presente trabajo de investigación, además de la importancia del Prácticum en su conjunto, se pone de manifiesto la influencia del uso de metodologías activas en los seminarios orientadores del Prácticum. Al diario docente basado en la primera y a las reflexiones realizadas en torno a la segunda, se le suman las emociones experimentadas tanto como persona como profesional, y la influencia que éstas han tenido en mi capacidad de relación. Por ello, este trabajo mostrará temas como las emociones, las relaciones, la importancia de la reflexión, la conciencia...temas que habiendo elegido la profesión de maestro, es inevitable no estar inmerso en ellos. El objetivo principal de este trabajo ha sido presentar y analizar la influencia que el uso de metodologías activas en los seminarios del Prácticum han tenido en mis competencias emocionales, así como en mi capacidad de generar relaciones. La metodología empleada para llevar a cabo este trabajo ha sido la autoetnografía, con la ayuda de el diario docente y las reflexiones en torno a los seminarios. Las conclusiones son las que ponen fin a este trabajo, y en esta parte se muestra la opinión personal de todo el proceso y la influencia ejercida sobre mí, es decir, la valoración personal de todos los temas que se han tratado a lo largo de este trabajo, y lo que este largo proceso ha supuesto y a su vez cambiado tanto como persona como profesional en mi interior.

Palabras clave: Practicum; metodologías activas; emociones; relaciones.

Abstract

In this research work, in addition to the importance of the Practicum as a whole, the influence of the use of active methodologies in the practical seminars of the Practicum is highlighted. To the teaching diary based on the first and to the reflections made around the second, there are added the emotions experienced both as a person and as a professional, and the influence they have had on my ability to relate. Therefore, this work will show topics such as emotions, relationships, the importance of reflection, awareness ... topics that having chosen the profession of teacher, it is inevitable not to be immersed in them. The main objective of this work has been to present and analyze the influence that the use of active methodologies in the seminars have had on my emotional competences, as well as on my ability to generate relationships. The methodology which has been used to carry out this work is autoethnography, with the help of the teaching diary and reflections on the seminars. The conclusions are the ones that put an end to this work, and this part shows the personal opinion of the whole process and the influence exerted on me, the personal assessment of all the topics that have been discussed throughout this work, and what this long process has meant and in turn changed both personally and professionally within me.

Key Words: Practicum; active methodologies; emotions; relationship.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. MARKO TEORIKOA	6
2.1. Gaur Egungo egoera	6
2.2. Zer suposatzen du Practicum Hezkuntza Munduan?	8
2.2.1. Haur Hezkuntzako etaparen garrantzia	8
2.2.2. Irakasleen prestakuntzaren barruan ezkututzen den altxorra: Practicuma	8
2.3. Hezkuntza berritzaile baten bila, metodologia aktiboen erabilpena	11
2.4. Irakaslearen konpetentzia emozionalak, harremanen ibilbidearen erantzule	12
3. HELBURUAK	15
4. MARKO METODOLOGIKOA	15
4.1. Esperientziaren testuingurua eta garapena	15
4.2. Ikerketarako erabiliko den metodologia	17
4.2.1. Ikerketa kualitatiboa	17
4.2.1.1. Autoetnografia	18
4.2.2. Ikerketarako datuen lorpena eta trataera	19
4.2.2.1. Datuak biltzeko erabiliko diren tresnak	19
5. EMAITZAK	20
5.1. Egunerokoari eta mintegien hausnarketei esker lortutako emaitzak	21
5.1.1. Practicumean eta mintegietan sentitutako emozioek nigan izan duten eragina	21
5.1.2. Sentitutako emozio horiek nire harremantzeko moduan izan duten eragina	26
5.1.3. Mintegien inguruko hausnarketek prozesu osoan zehar erakutsi didatena	28
5.1.4. Prozesuarekin lortutakoa: kontzientziazioa piztea	31
6. ONDORIOAK	33
7. LANAREN MUGAK ETA HOBEKUNTZAK	35
8. ETORKIZUNERAKO IKERKETA-ILDOAK	35
9. ERREFERENTZIAK	36
10. ERANSKINAK	42

1. SARRERA

Hezkuntza mundua jakintzaz betetzen duen prestakuntza da. Gaur egun tamalez, ez zaio behar bezalako garrantzia ematen, ez eta hezkuntza bat jasotzea ahalbidetzen duten langileei ere. Ebakuntzak egiten orduak pasa dituen medikuak eskolan ikasi zuen gaixoari gertatzen zaiona idazten, gaurkoan epaiketa gogorra izan duen abokatuak, bere bezeroaren kasua irakurtzen jakitea eskolari zor dio, edo beste adibide bat jartzearren, etxe ondoan lan egiten duen bankariak, kontu guztiak aurrera eramateko erabiltzen dituen eragiketek, eskolan dute oinarria.

Irakasle izateko lanbidea beraz, aurretik aipatutako lanbide guzti horiek bezain garrantzitsua da gaur egungo gizartean, eta garrantzia hori kontuan hartuta, irakaslegoaren lanbidea hautatzen duten ikasleei, lanbidea behar bezala betetzeko erramintak luzatu beharko zaizkie. Haur Hezkuntza haurren lehen eskolatze etapa da, haurren garapenaren zati garrantzitsua hartzen duena, hori dela eta, Haur Hezkuntzako graduan, garapen honen inguruko gaiei arreta handia eskaini beharko zaie. Gradu honetako irakasgaien barnean, garrantzitsua bezain beharrezkoa da Practicuma. Irakasle izateko prestatzen ari diren ikasleentzat, hiru urtetan zehar irakasle baten ondoan bigarren irakasle moduan jardutea, lan mundua eta etorkizuna gertutik ikusteko aukera paregabea da, bai eta lanbidearen hautaketa egokia den ziurtatzeko modua ere.

Hala ere, esperientzia horretara bideratu baino lehenagoko eta bitarteko prestakuntzak garrantzia berezia izango du eta horretaz jabetzeko aukera izan dut aurten, prestakuntza horrek egunerokotasunean eskolan bizi dugunarekin erlazio estua baitu. Hezkuntza urtez urte aldatzen dihoan moduan, eskola emateko modua eta beraz, formazioak luzatzeko metodologia ere hezkuntzarekin batera aldatu beharko dira, koherente eta gizartearekin bat datozen irakasleak lortu nahi badira. Hori dela eta, formazioak prestatzen dituzten irakasleek metodologia aktibo eta berritzaileetaz baliatuz, eta ikaslea abiapuntu izanik, bidea erraztea da helburua, unibertsitatean landutakoa eta eskolan ikusi eta ikasitakoak bat etortzea.

Horrez gain, urte honetan eta metodologia aktibo hauei esker, irakasle izango naizen kompetentzia emozionalak garatzen hastea lortu dugu, tutorearen laguntzaz eta egoera errealetatik abiatuz, emozioak gelatik zehar azkarrago edo beranduago agerian utzi baititugu, emozio horiek berak ezagutzuz eta haurren aurrean poliki izan bada ere, beldurrik gabe erakutsiz. Emozioekin eskutik helduta datozen harremanak ere, metodologia mota hauei esker garatu eta ezagutzeko aukera izan dut, irakasle izateko ezinbestekoa izango zaidana. Lanbide honetan harremanak sortzeko gaitasunak garrantzia berezia du, eta prozesu honetan zehar garrantzia hori ulertu eta gaitasuna garatzen hasten joan naizela

esan daiteke, eskola osatzen dugun pertsonekin elkarlanean jarduteko helburu nagusiarekin.

Hurrengo lana lau multzo nagusitan egituratuta dago. Hasteko, marko teorikoa dago, hainbat autoreren laguntzaz, ikerketa honen testuingurua kokatzeaz arduratuko dena. Ondoren, marko metodologikoa, honetan, ikerketa metodoa, bai eta datuen lorpena eta trataera aurrera eramateko erabili dena azalduta ageriko da. Marko metodologiko honi emaitzek emango diote jarraipena, ikerketa-lan honetatik ateratako ondorioek lanari amaiera emango diotelarik.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Gaur egungo egoera

SARS-CoV-2 coronavirus berriak, COVID-19 bezala ezagutzen den gaixotasuna sortzen duenak, mundu osoaren kezka nagusian bihurtu da. Txinan abenduaren amaieran sortu zen birus hau, Europan du foku nagusia, herrialdeak mugak itxita eta milioika herritar bere etxeetan sartuta dituelarik. Kontinente Amerikarra ere hurrengo biktima izango oten den beldur da orain, AEBetan kutsatzeak azkar zabaldu baitira, 121.000 pertsona baino gehiagoren bizitza eramanez (RTVE, 2020).

Aurreko datuek erakusten duten moduan, birus horren eragina izugarria izan da, biztanleriaren sektore guztiei eraso egin dielarik. Hezkuntza, kultura, ekonomia, osasuna... dira geratzeko etorri den Covid 19ren kaltetu handienak. Adituek diotenez, egoera zeharo aldatuko da hemendik aurrera eta dagoeneko aldatu da, hezkuntza horren adibide argia izanik. Izan ere, orain arte ez da inoiz klaseak bertan behera uztera behartu duen gaixotasunik ikusi.

Ikastetxeak ixtea eta eskola presentzialak on line eta urrutiko prestakuntzarengatik ordezkatzera aldatu egin du hurrekin harremantzeko modua; goizeko errutina, abestiak, begietara begiratzea edo ikasleekin konfiantzazko harremana garatzea ikasgelan gizabanako guztien presentziarekin lortzen den alderdi positiboetako bat da, birus honek eta etxean geratzeak egoera guztiz hoztu duelarik. Argi dago, oso zaila da hurbiltasun hori gailu teknologiko batetik lortzea, zaila adibidez, Practicum batean bizitakoa ordenagailuaren bitartez sentitzea.

"Mende honetako irakasle baten erronka ikasleen harridura gaitasuna motibatzeke, ikaskuntza esperientziak sortzea da" (Araque, 2017). Egia da, gauza gutxik deitzen dute arreta gaur egun, bereziki eskolarekin zerikusia duen horrek, ez du interes askorik pizten. Eskolara joan eta irakasle batek liburuan dagoena aurkezpen batean plazaratzea eta

aurkezpen horretatik dena irakurtzea, ez du ikastera bultzatzen, ez ditu ikasteko gogoak ematen, aurkezpenean ageri dena ikasleen bizitzarako garrantzitsua izango bada ere.

“Jakinmina duen ikasle batek interesez eta gogoz ikasiko du” (Gruber, 2015). Urteen poderioz, ikerketa askok ikasleei ikastera bultzatzen diona, motibazioa eragiten dion edozer dela ikusi da, interesa, jakinmina ematen dion horrek. Irakaslea bere aldetik, zerikusia handia izango du honetan, bera izango baita hurrek haien kabuz ikasteko egoera berriak sortuko dituen, haiengan interesa eta jakinmina piztuko duena bilatzearekin batera. Argi dago, ondo gogoratua izango den irakaslea da hurrengan eragin handiena suertatu izan duena, izaera, klaseak emateko era, ikasleen interesetara egokituz ikasketa prozesuan laguntzaile gisa jardutea, ikasleak ezagutzeko denbora hartzea, emozioekin lan egitea, gelan sortzen den giroa, harremanak zaintzearen garrantzia, hitz batean laburtze aldera, ezagutzearen garrantzian jarri behar da fokua; “La enseñanza escolar se orienta esencialmente, por no decir que de manera exclusiva, hacia el aprender a conocer y, en menor medida, el aprender a hacer” (Delors, 1996, 91.orr).

Ez da erraza, irakasteko metodoa egun batetik bestera moldatu behar izatea, goizetik gauera egunero eta hainbeste urtez ohitutako errutina aldatzea, haurrak aurrez aurre ikustetik, pantaila batetik zehar ikustera igarotzea, eskemak goizetik gauera apurtzea. Egoera honek izan ere, harremanetan izango du eragina, harremantzeko eran, kurso osoan zehar sortutakoa gailu teknologiko baten bidez transmitzen jarraitzeko ahalegina egin behar delako orain, baina argi dago, ahalegina egin badaiteke ere, ez da berdina izango. Irakasleak bere aldetik ere, bere erramintak erabili beharko ditu, egoera gero eta modu arruntenean aurrera ateratze aldera, bere konpetentziak zeintzuk diren erakutsiz, konpetentzia emozionalek berebiziko garrantzia izango dutelarik.

Oraindik ikasle moduan jarduten dutenentzat, ezin da imagina Practicum batean bizitakoa eta hurrekin lortutakoa egunetik egunera desagertzea, elkarrekin sortutakoa birus batek egun batetik bestera guztiz suntsitzea. Gizartean horrela ikusita ez badago ere, irakaslearen lanbideak zama izugarria du atzean, Haur hezkuntzako irakasle izatea ez baita soilik abestia, dantza, margoketa...bezalako jardueretara mugatzen. Haur hezkuntza ikasle baten oinarritzat jarduten duen etapa da, eta berebizikoa da bertan hurrei transmititzen zaiena, haiekin erabiltzen diren metodologiak, haiekin sortzen den harremana... ondorengoetan eragina izango baitu.

Horregatik, hurrengo lerroetan, hezkuntza munduaren barruan noski, haur hezkuntzako etapak eta irakaslearen formazioaren barneko practicumak duen garrantziaz, metodologia aktiboez, irakasle baten konpetentzia emozionaletaz eta harreman

pedagogikoetaz idatziko da, horrelako egoera batek egunerokotasunean benetan zer dagoen baloratzera eramaten duelako.

2.2. Zer suposatzen du Practicumak Hezkuntza Munduan?

2.2.1. Haur Hezkuntzako etaparen garrantzia

Haur Hezkuntza eskolako lehen hezkuntza etapa da, prestakuntza osoan zehar, oinarrizkoak eta funtsezkoak diren gaitasunak lortzea oinarritzat duena. Gainera, etapa honetan gizakiek bakarrik lortu dezaketean hainbat prozesu hasten dira, hala nola, garapen intelektuala, gaitasun fisikoen eta trebetasun kognitiboen garapena, afektuen eta sentimenduen barne mundu aberatsarena; hitz gutxitan esanda, hazkunde pertsonalaren prozesua bere dimentsio guztietan hasten den etapa da Haur hezkuntza: arrazionala, biologikoa, sentoriala, estetikoa, afektiboa, sortzailea eta morala (De Moya eta Rotondaro, 2015).

Haur hezkuntza haur bakoitzaren oinarria eratzen den etapa da, eta gizarte honetan lanbide erraza eta eroso bezala ikusten den arren, oinarri desegoki eta desantolatu bat duen edozer, gutxien esperotako momentuan gainera erori daiteke. “La Dra. Montessori hablaba de una educación que sirviera a la vida, una educación que acompañara al niño durante sus etapas más sensibles y que facilite los momentos de mayor adquisición formativa” (Hermida eta Rodríguez, 2020, 3.orr). Hori dela eta, harreman sendoak eratzea, haurrak entzutea, haien interesetara egokituak dauden baliabideak erabiltzea eta orokorrean haurra inguratzen duen pertsona bakoitzarekin elkarlanean jardutea, berebizikoa izango da Haur hezkuntzako irakasle batentzat.

Haurrengan irakasleek duten eragina izugarria da, horregatik inoiz baino gehiago, ikasleekin sortuko den harremana bereziki zaintzeak garrantzia handia du gaur egun. Ikasleek practicumetan haurrekin lehenengo kontaktua izaten duten arren, argi dago, urteen poderioz, erraminta gehiago lortuko dituztela harreman horiek behar bezala eratzeko. Izan ere, Franklin P. Jonesen (1921) hitzetan, esperientzia besterik ez dago behin eta berriz egindako akatsak antzemateko eta horietatik ikasteko (The Agile Way, 2020).

2.2.2. Irakasleen prestakuntzaren barruan ezkututzen den altxorra: Practicum

Irakasleak hezkuntza kalitate ona lortzeko elementu erabakigarriak dira. Hori dela eta, hezkuntza sistemak irakasleen prestakuntzari erreparatzeaz gain, (Romero-Cerezo, Zurita-Ortega eta Zurita-Molina, 201) inklusiboa izan behar du, gaitasun eta trebetasun desberdinak dituen pertsoez osatutako gizarte kulturantz batean bizi garen heinean. Era berean, integratzailea, autonomia, sormena eta hausnarketa garatze aldera. Horrez gain,

trebetasunak beren erritmoaren arabera eta inolako zapalkuntzarik gabe garatzeko, hezkuntza sistemak aukerak ireki behar ditu, ikasle guztiak giro atsegina batean hezi daitezela (Garduño, 2015).

Irakasleen prestakuntzaren inguruan ordea, kezka piztu da azken urteotan, izan ere, gaur egun irakasle izatea ez da lanbide erraza. Egungo gizartean irakasle izatea etengabeko berrikuntza batean bizitzea dakar; jarduerak, helburuak, komunitateko harreman berriak... Eskolak bere aldetik prozedura jakin batzuk hautsi eta metodologia berri behar du, espektatiba guzti horien bitartekariak izateaz gain, gizarteak eskatzen dituen beharrei erantzuteko arduradunetako bat direlako. Ez dira kudeatzaile bakarrak, ez eta informazio-iturri bakarrak ere, baina irakasleen papera ezinbestekoa izaten jarraitzen du, ikasleei beren ezagutza pertsonala eraikitzen laguntzeko bai behintzat, igorle izatetik gidatzaile eta orientatzaile papera hartuz (Sancho eta Correa, 2013). Horrek guztiak, prestakuntza programek, ikerketa emaitzak, eduki praktikoak eta irakaskuntza estrategiak beren ikasketa planen barruan gero eta gehiago sartzea eragin duelarik (Grau, Gómez eta Perandones, 2009).

Haur hezkuntzako practicum prestakuntza honen barnean sartzen da ere, eta hezkuntzaren barnean dagoen edozerk bezala, bere garrantzia berezia du. Unibertsitateko ikasleen kasuan, etorkizuneko lanbidearekin lehenengo kontaktua ahalbidetzen duen esperientzia da, hilabete horietan irakasle baten ardurapean egon arren, lan mundua zer den era batean edo bestean erakusten duena. Practicum errealitatearekin, haurrekin eta profesionalekin bat egiteko unea izateaz gain, norberaren sentimenduak, beldurrak eta etorkizuneko itxaropenekin topo egiten duen momentua ere bada (González-Garzon eta Laorden, 2012).

(1707/2011 Errege Dekretua), Praktika plana testuinguru honetan sartzen da: 1393/2007 Errege Dekretua, urriaren 30eko BOE, Unibertsitateko ikasketa ofizialen egitura garatu eta Unibertsitateko Irakasle titulu ofiziala hainbat espezialitatetan ezartzen duena, eta titulu hori lortzeko ikasketa-planen zuzentarau orokorrak zehaztu eta espezialitate bakoitzeko irakasgai ardatzak xedatzen dituena. 47/1993 Dekretua, apirilaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA). Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako EHAAn indarrean dagoen hizkuntza-eskakizunen legea. EHUren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko Esparru Hitzarmena (Practicum III Gida, 2020 testuan aipatua).

Haur hezkuntzako practicumaren helburua, ikasleak irakasle rolean kokatzea eta errealitatea eta graduiko irakasgaietan ikasitakoa kontrastatzeko da. Aldi horretan funtsezko garrantzia izango du gela barruko eskuhartzeak, bertako errealitateak ematen dizkion

baldintza guztiekin. Era berean, ikastetxean garatzen ari diren hezkuntza arloko berrikuntza proiekturen batean parte hartzen duelarik (Practicum III Gida, 2020).

Prestakuntzan dagoen irakasle batentzat, unibertsitatean jasotako teoria praktikan jartzea garrantzitsua da; bai bere lanbidean aritzeko, bai bere garapen pertsonal eta akademikorako (Raposo eta Zabalza, 2011). Hala ere, eta Zeichnerrek (2007) esandako hitzen arabera, azterketarik eta hausnarketarik gabeko praktikaldi batek, ez du inolaz ere ezagutza profesionala hobetzea ekarriko (Mena, Gómez eta García, 2019 testuan aipatua).

Practicumean jardura profesionalak garatu ahal izateko, ikasleek gaitasunak eskuratu behar dituzte, irakaskuntza-prozesu osoan parte hartuz eta hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan arituz (Fernández, Gértrudix, De Cisneros, Rodríguez eta Rivas, 2015). Horregatik da hain garrantzitsua irakaskuntza jardunari buruzko hausnarketa egitea, ikaskuntza sustatzeko eta gaitasunak eskuratzeko bitarteko bat baita (Mena, Gómez eta García, 2019).

Irakasleen ikaskuntza prozesuak indartzeko, prestakuntza programek azterketa metodo gisa, hausnarketara jotzen dute ere, eta horren bidez, irakasleek hezkuntza-errealitateari buruzko ezagutza sortzeko beren praktika behatu eta aintzat hartzen dute (Beltrán, 2003). Hausnarketak ikaskuntza-prozesu profesionalak indartzen ditu (Dewey, 1933; Hatton eta Smith, 1995; Schön, 1983), irakasleei esperientzia batetik bestera igarotzeko aukera emateaz gain, ulermen handiagoa eskuratzeko ahalbidetuz (Mena, Gómez eta García, 2019).

Hezkuntza Zientzietako ikasleen prestakuntza eta praktikaldia, ikasleak bere pentsamendu praktikoa ikertzeko, interpretatzeko, hausnartzeko eta berreraikitzeo aukera ezin hobea da (Korthagen, 2004; 2011). Era honetan, gaitasun profesional garrantzitsuak eskuratzeko lortuko dute, hala nola, zalantzan jartzea, ikerketa (Fernández eta Farzaneh, 2018) eta etengabeko ikerketa (Day, 2005), pentsamendu kritikoa (Tardif, 2004), gogoeta eta lankidetzak (López Melero, 2014; 2018). Fakultateko espazioetako kanpo praktiken mintegietan gauzatuko den irakaskuntza metodologiarekin estuki lotuta dagoena (Díez eta Rodríguez, 2020).

Díez eta Rodríguezek (2020) idatzitakoaren arabera, gune didaktiko horiek etorkizuneko profesional kritiko, gogoetatsu eta konprometitu bat osatzeko funtzioa bete dezaten, mintegietan garatuko den irakaskuntza metodologia, honako hauetan oinarritu behar da: ikaskuntza kooperatiboan, arazoetan oinarritutako ikaskuntzan (López Melero, 2014; 2018), eta ikerketaren hausnarketan oinarritutako ikaskuntzan (Metlife et al., 2010; Korthagen, 2011).

Metodologia horietan oinarrituz ikasten da gehien, praktika horietan azaleratzen baita benetan bizitakoa. Arazoetan oinarritutako ikaskuntza, adibide ezinhobea da Haur hezkuntzako geletan suertatzen diren arazoak, mintegietara ekarri eta denen artean ebazteko, era honetan ere, ikaskuntza kooperatiboa sustatzen delarik. Praktiken inguruko ikerketa eta hausnarketa egitea ere faktore garrantzitsua da, askotan eremu hau neketsuagoa den arren, pertsona bakoitzaren jokabide eta ekintzen inguruan, asko ikasi eta profesional moduan hezi egiten dituelako.

Ildo horretan, Haur hezkuntzako praktiken tutoretza akademikoa egiteaz arduratzen diren irakasleek funtsezko eginkizuna betetzen dute; hasierako unibertsitate prestakuntzan, lanbide ezagutza ikuspegi kritikotik eraikitze prozesua errazteko erabilitako metodologiari (Korthagen, 2011; Metlife et al., 2010 eta Tardif, 2004), eta Korthagenek (2011) esan bezala pentsamendu praktikoaren zimenduari dagokionez (Díez eta Rodríguez, 2020 testuan aipatua).

Hala da, irakasle jardungo duten lehenengo aldia izango den horretan, ikasleak oso galduta senti daitezke, azkenean, "profesional" moduan arituko dira hainbat astez, egoera horri aurre egiteko erraminta oso gutxi dituztelarik. Hori dela eta, formakuntzaz arduratzen den tutoreak betebeharrak oso garrantzitsu bat daukala esan daiteke, haren ikasleei formakuntza horrek hornitzearen funtzioa hain zuzen ere. Formakuntza horrek irakasle izateko ibilbidean bere zertxoa eskaini behar du, ikasleei etorkizunean irakasle izaten lagundu behar dio, eta horretarako, formakuntzaz arduratzen diren tutore berdin horiek, metodologia egokienak bilatu beharko dituzte, mintegiak ahalik eta baliogarrien suerta daitezen.

2.3. Hezkuntza Berritzaile baten bila, metodologia aktiboen erabilpena

Aurretik aipatutako Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruan (GHEE), Unibertsitate sistemaren sarbideak, De Miguelek (2005) aipatu bezala, metodologia erreforma bat ekarri zuen berekin. Erreforma horren ezaugarrien artean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ikasleen inplikazio eta parte hartze handiagoa nabarmentzen delarik. Paradigma aldaketa horri esker, irakasleengan (irakaskuntzara bideratua) zentratutako irakaskuntza ikuspegi batetik, ikasleengan (ikaskuntzan zentratua) fokalizatutako beste ikuspegi batera igaro ahal izan zen (Jiménez, González eta Tornel, 2020), metodologia aktiboen bidezko irakaskuntza izenez ezagutua izan zena.

Metodologia aktiboak irakasteko eta ikasteko prozesuari egindako ekarpen didaktiko nagusietako bat dira, irakasleari zeregina modu eraginkorragoan bere gain hartzeko aukera ematen baitio. Horrez gain, ikasleei ikaskuntza esanguratsuak lortzen laguntzen die, beraiek baitira beren ezagutza berrien eraikitzaile aktiboak. Horretarako, ikaskuntzaren dimentsio

soziala eta sozializatzailea hartzen ditu kontuan, baita ezagutzen banakakoa eta barnekoa ere (Granados, Vargas eta Vargas, 2020). Fernandezek (2006), konpetentziak osatzeko metodologia aktiboari buruzko artikuluan, gaur egungo munduan ikasleak etengabe aldatzen eta eguneratzen den informazioaren eraginpean daudela adierazi zuen; beraz, irakasteko eta ikasteko prozesuaren ardatza ez dela ezagutza bera; ikasteko, hartzeko eta antolatzen, txertatzen eta erabiltzen jakiteko gaitasuna sortzea baizik (Granados, Vargas eta Vargas, 2020 testuan aipatua).

Paulo Freiren (1997) hitzetan, "Irakastea ez da ezagutza transferitzea, bere ekoizpen edo eraikuntzarako aukerak sortzea baizik" (Flecha, 2004 testuan aipatua, 34.or). Testuinguru horretan, ikasleak bere ikaskuntzaren arduraduna izaten ikasi behar du, informazioa bilatuz, aukeratuz, aztertuz eta ebaluatuz, bere ezagutzaren eraikuntzan rol aktiboagoa hartuz. Koherentziaz, irakaslearen zeregina izan beharko litzateke ikaskuntza jarduerak planifikatzea eta diseinatzea, ikasleek ikasketa planetan ezarritako gaitasunak eskuratu ahal ditzaten (Collazo eta Geli de Cirauna, 2017).

Metodologia aktiboen bidez gaitasunak eskuratzea lortzen dela diote hainbat autorek (Calvo & Mingorance, 2009; Palomares, 2011). Horrela, metodo aktiboen erabileraren eta GHEEtik eratorritako gaitasunen arteko lotura ikusten delarik, eta konpetentzia emozionaletan fokoa jarriz (Martinez eta Llorens, 2014). Honen arrazoia sinplea da, gaitasunak praktikoak, arazoak konpontzekoak eta erantzukizuna garatzekoak direnez, metodo aktiboen bidez landu daitezke (Jiménez, González eta Tornel, 2020).

Era honetan, metodologia aktiboak Haur hezkuntzan ikasteko modu oso aproposak direla ikus daiteke. Hala ere, erabiltzen dituen pertsonak ere konpetentzia jakin batzuk izan beharko ditu, metodologia horiek ikasleengan duten eragina ziurtatzeko, konpetentzia emozionalen ezagupen eta kontrol handia izatea berebizikoa izango delarik.

2.4. Irakaslearen konpetentzia emozionalak, harremanen ibilbidearen erantzule

Vigotskyk (1978) izaki bizidunak besteekiko interakzioa beharrezkoa dugun izaki sozialak garelako esaten zuen (Martínez, González eta Pérez, 2014 testuan aipatua). Interakzioak harremana sortzen du eta harremana badago, emozioa agertuko da. Emozioak bere aldetik, eta bereziki honi ematen zaion kudeaketaren arabera, harremana desberdina sortzea eragingo du, bata bestea gabe ulertu ezin delarik.

Bisquerrak eta Pérez-Escodak (2007) definitu zuten bezala, fenomeno emozionalak modu egokian ulertu, adierazi eta erregulatzeko beharrezkoak diren ezagutza, gaitasun,

trebetasun eta jarreraren multzoa dira konpetentzia emozionalak (Gallardo, 2018 testuan aipatua).

Extremera eta Fernández- Berrocalen (2004) hitzetan, ikasleek beren konpetentzia emozionalak behar bezala gara ditzaten, hezitzaile emozional bat behar dute. Jakin edo ez, irakaslea garapen afektiboko eragile aktiboa da eta trebetasun horiek kontzienteki erabili beharko lituzke bere lanean; ezagutza duenez, ikasleentzat bizitzaren aurrean ikusteko, arrazoitzeko eta modu egokienean erantzuteko adimen emozionaleko eredu helduan bihurtzen baita. Hori dela eta, ezagutza teorikoak transmititzeaz gain, irakaslea ikasgelako ikasleen profil afektiboa eta emozionala moldatzeko eta egokitzeko erantzulea izango da” (Gallardo, 2018, 6.orr).

Irakasleen konpetentzia emozionalak garatzea komenigarria da, beren ongizate pertsonal eta profesionalerako ez ezik, ikasleen garapen emozional eta sozialerako, beren irakaskuntza-jarduera eraginkortasunez eta kalitatez gauzatu ahal izateko (Sutton eta Wheatley, 2003). Hori oinarritzat hartuta, garrantzitsua da konpetentzia emozionalak irakasleen hasierako prestakuntza curriculumean sartzea, praktikan, konpetentzia berdin horiek, irakaskuntza konpetentzien multzoaren barruan bigarren maila batean geratzen badira ere (Bisquerra, 2005; López-Goñi eta Goñi Zabala, 2012: Gallardo, 2018 testuan aipatua).

Defizit hori kezagarria da, irakasleek, behar bezalako prestakuntza bat izan behar dutelako, ikasleen konpetentzia emozionalen garapenaren arduradun zuzenak diren aldetik (Palomera et al., 2008). Brackett eta Carusok (2007) eta Extremera eta Fernandez-Berrocalek (2004) adierazitakoaren arabera, ikaskuntza prozesuetan emozioek eta horiek erabiltzearekin lotutako trebetasunek ikasleei osasun mentalean, fisikoan, harreman sozialen kalitatean eta errendimendu akademikoan eragiten diete. Irakasleei bere aldetik, osasun mental zein fisikoan, gizarte-harremanen kalitatean eta lan errendimenduan ere eragiten dietelarik (Gallardo, 2018 testuan aipatua).

Hernándezen (2002) hitzetan, Gaur egun, **irakaslearen zeregina** ezagutzak transmititzea baino haratago doa, bere helburua ikasleek prestakuntza integrala lortzea izanik. Horretarako, modu desberdinean ulertzen da afektibitateak eta emozioek hezkuntzan duten zeregina, kognitiboak afektibitatea konfiguratzeko duela eta afektiboak kognitiboak baldintzatzen duela jasota utziz (Gallardo, 2018 testuan aipatua).

Durlak eta Weissbergekek (2005) esan bezala, hezitzaileentzat, konpetentzia emozionaletan behar bezala prestatuta egotea ezinbesteko baldintza da, ikasleei bizitarako beharrezkoak diren trebetasun emozionalak garatzeko heziketa emozionala eman nahi badiete. Hala, hezkuntza sozioemozionalak ikaskuntza areagotzen eta hobetzen du, bai

gaitasun emozionaletan eta sozialetan, baita ikaskuntza akademikoan ere (Gallardo, 2018 testuan aipatua).

Hezkuntzan, desertzio edo eskola errendimendu txikiaren arazoez gain, egunero beste hainbat faktorek eragiten duten arazoak ere badaude, hala nola, ikasteko eta lan egiteko interes eza, jokabide disruptiboak, pertsonen arteko harreman desegokiak, ikaskuntza esanguratsua gauzatzeko giro osasuntsu eza, eta irakaslearen partetik estresa eta motibazio falta, besteak beste. Arazo guzti horiei esker, argi eta garbi ikusten da irakaslea, lanean jarduteko eta curriculumak adierazten dituen hezkuntza helburuak lortzeko lanbide profila betetzeaz gain, konpetentzia emozionalak garatzeko interesa izan beharko duela, bere lana, funtsean, elkarrekintzetan, harreman pertsonaletan eta komunikazioan oinarritzen baita. Sylvia Schmelkes (1995) ere bat dator honekin: "Hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza, gehiago dago irakasle gisa lan egiten duten pertsonen kalitatearen menpe, ikasketa plan eta programen menpe baino" (Barraza, 2017, 82.orr).

Irakasleak taldearekiko dituen konpetentzia emozionalak, profesionalekin batera finkatu behar dira; izan ere, irakasleek curriculumaren betetze hutsetik harago egiten dute lan, eta curriculumaren ondorioak, beren zeregina egiteko moduetan eta ikasleekin ezartzen dituzten harremanetan agertzen dira. Bilatzen den prestakuntza integrala lortzeko, hezitzaileak bere eginkizuna zein den jakitarekin batera, bere garapen profesionala zein pertsonala bilatu beharko du (Barraza, 2017). Esan bezala, berebizikoak dira irakasle baten konpetentzia emozionalak ikasleekin sortuko dituen harremanetan, horiek izango baitira harremanen ibilbidearen erantzule.

Hezkuntza harremanean pentsatzeak, ikasleek eta irakasleek gelan topo egiten duten bakoitzean, bizitako esperientzia subjektiboa izango dela esan nahi du. Esperientziari zentzua emateko, pertsonok hura kontatzeko beharra dugu (Contreras eta Pérez de Lara, 2010), horrela esanahi bat emanez, eta bizipenari eta munduan dugun lekuari zentzua ematen dion istorio bat eraikiz (Martin-Alonso, Blanco eta Sierra, 2019).

Harremanak curriculumaren eta ikasgelaren elkarrekintzan, eskolaz kanpoko jardueretan, aholkularitza eta tutoretzan oinarrituta egon daitezke (Bernstein-Yamashiro, 2013), bai eta talde lanean, parte-hartzean, akordioetan, ekimenetan, esperientziak eta ezagutzak trukatzeko eta gatazkei aurre egiteko moduan ere (Benito, 2006). Irakasleentzat, harremanak aldi baterakoak izan daitezke, baina nahiko errealak dira. Ikasleak pertsona gisa ezagutzeko nahia, ikasgelako giro segurua sortzeko ahaleginean edo ikasleek arrakasta izaten laguntzeko, bai eta badaude ikasleen barnea interesgarria suertatzen zaielako ezagutu nahi dituzten irakasleak ere. Sarritan harremanak irakasle askoren pertzepzioen

erantzuna dira, ikasleek ez baitute heldu baten eredu hori haien bizitzetan (Bernstein-Yamashiro eta Noam, 2013).

Hezkuntza harremana bitartekaritza esperientzia bat da. Irakaslea ikaslearekin elkartzean, bizipenak itxura linguistikoa eta sinbolikoa har dezan bitartekaritza egiten du, era honetan, bere historiaren barruan bizitako esperientziaren esanahia zentzuz eraikitzen lagunduz. Hau da, hemen jokoan dagoena da "nola lortzen duen pentsamenduak esperientziatik jaiotzea harremanean sartzen den unean" (Martin-Alonso, Blanco eta Sierra, 2019, 106.orr).

Ikasleekin harreman sendoagoak edukitzeko gaitasuna edo ikasgela pertsonalagoa sortzeko gaitasuna, ez da normalean irakasle izateko beharrezkoa. Garapen sozioemozionala ez da irakasleen hezkuntzan maiztasunez betetzen, ezta irakasleen ebaluazioak lotura horietan oinarrituta egoten ere. Nolanahi ere, irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanak, irakasleen lanaren esanahia gidatu eta definitzeaz gain, ikasleen arrakastarako funtsezkoak izan daitezke. Egungo estatuko eta nazioarteko agendak, azterketak eta datu gogorrak bideratzen dituen bitartean, irakasle askok garapenean dauden nerabeek, edukien ezagutza eta pedagogia menperatzea baino gehiago behar dutela aitortzen dute. Irakastea lan nahasgarria da, erronka pertsonalak eta kanpoko estresak dituzten bitartean, norberaren identitateak garatzeko borrokan ari diren haur eta taldeekin harremanak behar dituelako. Gizarte mailan, ikasleengana iristeko eta haiekin harremana izateko ahaleginak egiten dituzten irakasleek, sari pertsonal sakonak aurkitzen dituzten bitartean, sarbide akademiko garrantzitsuak egiten dituztela dirudi (Bernstein-Yamashiro eta Noam, 2013).

3. HELBURUAK

Marko teoriko honetan azaldutakoa kontuan hartuz, eta nire GRAL-aren gaia "Harreman pedagogikoak" izendatutakoa dela ikusiz, hautu honen zergatia nire bizipenetan oinarrituz azaltzen saiatu naiz idatzi berri ditudan lerro hauetan, atal honi amaiera nire lanaren helburuekin emango diodalarik. Lan honen bidez helburu bakarra da lortu nahi izan dudana eta hurrengoa da: (1) practicumeko mintegietan metodologia aktiboak erabiltzeak nire kompetentzia emozionaletan, bai eta nire harremanak sortzeko gaitasunean duten eragina aurkeztea eta aztertzea.

4. MARKO METODOLOGIKOA

4.1. Esperientziaren testuingurua eta garapena

Ondo gogoratzen dut matrikula egin behar genuen eguna iritsi zenean, kurtsoko minorra eta haren irakasgaiak hautatu ondoren, GRAL-aren erabakia hartu behar izan nuenean. Ideia batzuk nituen buruan bai eta zerrenda batean gehien gustatzen zitzaizkidan gaiak izendatuta ere, baina nire ezusterako, erabakia hartzera joan nintzenez, gai horiek guztiak dagoeneko hartuak zeuden. Hori dela eta, eta nire interesen arabera, irakasle bakoitzak eskaintzen zuena irakurriz eta sakon aztertuz joan nintzen, nituen aukeretatik bat hautatzeko asmoz. Irakasle asko ezagutzen ez banituen ere, lehenengo ezagunetara joan nintzen, baina aukera horiek ez ninduten batere konbentzitu. Hara non, Imanol Santamaria irakurri nuen bat-batean eta bera ezagutzen ez nuen arren, bere inguruan oso ondo hitz egin zidatela aprobetxatuz, bere izena sakatu eta berak eskainiko zidana irakurri nuen. "Harreman pedagogikoak" gaia irakurri nuen lehendabizi, eta gehiegi pentsatu gabe interneten horren inguruko informazioa bilatzen hasi nintzen. Gaia hezkuntza munduko harremanen inguruan izango zela ikusita, GRAL-a Imanolekin egitea erabaki nuen, egunero nire hautaketaren inguruan gero eta konbentzituagoa nengoelarik.

Ez dakit kasualitatea edo bizitzak hala erabaki zuen, baina bigarren egunean gelara iritsi eta Imanol Santamaria deituriko irakasle batekin topo egin genuen. Gure irakaslea izango zela azaldu zigun orduan, kulturartekotasunaren hezkuntza politikak irakasgaiean berarekin egongo ginela. Horren ondoren, eta gelako hiru ikaskidek berarekin GRAL-a gurela aprobetxatuz, gu hirurokin elkartzea erabaki zuen, hortik aurrera GRAL-a aurrera eramateko modua azaltzearen helburuarekin.

Bilera horretan, beste bi ikaskide eta Imanolekin batera, Practicum-aren inguruko mintegi batzuk egitea adostu genuen, bai eta horietarako pertsona gehiago bilatzea ere. Klaseko taldetik idatzi eta gero beste bi ikaskide lortu genituen, eta horrela, ostiralero 18etan hitzordu bat finkatu genuen, zortzi astetan zehar bete genuena. Hitzordu horietan Practicum-aren inguruan hitz egingo gurela espero nuen, ez dakit zein eratan ezta normalean Practicumeko mintegietan egiten genuenaren berdina izango zen edo ez, baina ez nuena batere espero, mintegi horietako bakoitzak nire gain izango zuen eragin hori. Mintegi bakoitzean, gutako bakoitzak Practicumean aste horretan izan genuen gertakizun esanguratsu bat ateratzea, eguneroko bat eta mintegi bakoitzean gertatzen zena idazteko eskatu ere, guk zertarako izango zen ondo ez genekien arren, astero-astero gure lana eginda eraman genuen.

Aurtengo Practicum egiteko, duela lau urte bukatu zenari omenaldia eginez eta zikloa bukatze aldera, DBHtik aurrera nire ikastola izan zena hautatu dut, Olabide Ikastola hain zuzen ere. Hiru urteko gelan ibili naiz bi hilabetetan zehar, bigarren irakaslearen papera betetzen, haurrekin harremanetan eta haien heziketan nire zertxoa ere emanez, baina baita

behatzaile gisa ere, urte askotako esperientzia duen irakasle baten ohitura eta heziketa balioei erreparatuz.

Hori jakinda, nire ikerketa-lana mintegi horietan bizitako esperientzia idatzizkoetatik, eta Practicum osoan zehar jasotako egunerokoetatik ateratako emaitzetan oinarrituko da, mintegi horiek eta Practicumak berak, bai nire konpetentzia emozionaletan, zein harremantzeko gaitasunean izan duen eragina aztertzeko helburuarekin. Ikerketa hau burutzeko, nire helburuekin bat eginez eta idatzizkoari koherentzia eman nahian, hurrengo galdera izan dut oinarri: Zenbateko eragina du nire egoera emozionalak harremantzerako orduan?

4.2. Ikerketarako erabiliko den metodologia

Ikerketa-lana egiteko erabiliko den metodologia kualitatiboa izango da, lortuko diren emaitzak bizitako bi esperientzietatik aterako direnez, lan subjektibo baten aurrean egongo gara; zehatzago esanda, ikerketa kualitatiboaren barnean dagoen ikerketa autoetnografiko baten aurrean. Hori dela eta, hurrengo lerroetan, ikerketa kualitatiboaren eta autoetnografiaren definizioak azalduko dira, lana hobeto kokatze aldera.

4.2.1. Ikerketa kualitatiboa

Urteen poderioz ikerketa kualitatiboaren inguruan idatzi duten autore ugari egon dira, bai eta bakoitzak ikerketa beraren ikuspuntu pertsonala eman ere. Atal honetan, autore horietako batzuk esandakoa ageriko da, haien definizio eta ikusmoldeaz baliatuz, ikerketa kualitatiboaren esanahia osatzeko helburuarekin.

Interpretazio-paradigma, kualitatiboa, naturalista, humanista edo etnografikoa izenez ere ezagutua, errealitate dinamiko, anizkoitz eta holistiko baten erdian, giza ekintzen eta gizarte bizitzaren esanahietan arreta jartzen duen ikerketa da. (Gil, León eta Morales, 2017).

Ikerketa kualitatiboak, interpretazio-praktika multzo gisa, ez du metodologia bakar bat beste batzuen aldean lehenesten. Eztabaidarako edo diskurtsorako espazioa denez, zaila da argi eta garbi definitzea. Ez du teoria edo paradigma jakin bat, horrek, bere kabuz bereiztea eragiten duelarik (Denzin eta Lincoln, 1994).

Ikerketa horrekin izenpetutako azterketa bati esker, ikertzaileak "gertakarien izaeraren eta funtsaren funtsa bere batasun sinboliko, estruktural eta historikoan ezarri ahal izango du" (Mejía, 2008, 283.orr); Gutiérrezek (2008) ere, paradigma kualitatiboaren inguruan idatzi zuen, eta haren esanetan, paradigma honetaz baliatuz, ikertzaileek izaera subjektiboan garrantzia lortzen joango dira, haien aurkikuntza ekintza burutzen duen subjektuaren bidez ematen delarik. Horretarako, eta Mejia (2008, 280.orr) adierazitakoaren arabera, "subjektuek duten motibazio egitura, haien jokabidea bideratzen duen helburua eta

xede jakin batera bideratzen duten balioen, sentimenduen eta sinesmenen azterketa gainditu beharko da." (Hernández eta Rivera, 2009 testuan aipatua).

Leon eta Monteroren (2015) esanetan, ikerketa kualitatiboan ez dago adostasun argirik metodo eta teknika kualitatiboaren bereizketan. Egile batzuen ustez, metodo desberdinak daude, behaketa parte-hartzailea eta elkarrizketa, metodo horien barruan sartzen dituztelarik. Beste egile batzuk ordea, azken horiek teknika kualitatibo gisa hartzen dituzte (Fontes de Gracia, García, Quintanilla, Rodríguez, Rubio eta Sarriá, 2015 testuan aipatua).

Ikerlari interpretatzaileak zuzenean behatu ezin diren eta esperimentatu ezin diren fenomenoek ezaugarriak aztertzearen alde egiten dute, orokorrean begiratu baino, gauza bakar eta partikular gisa ikertzen dutelarik. Paradigma horri ikerketa etnografikoak, kasuenak lotzen zaizkio, besteak beste. Ikerketa-paradigma horretan, ikerketa-arazoa, gizarte taldeek sortzen dute, subjektuen ikuspegiaren bidez, egoera ezagutzea eta ulertzea helburu gisa izanik (Gil, León eta Morales, 2017).

Ikerketa kualitatiboak modu desordenatuan biltzen eta aurkezten diren hainbat errealitate, ahots eta testu ezagutzen ditu. Hernández-Hernández eta Benaventeren (2019) ustez, zentraltasuna jada ez da bere esperientziaren berri ematen duenaren subjektibotasunean egongo, esperientzia hori ahalbidetzen duten harremanetan baizik (Hernández-Hernández eta Benavente, 2019).

4.2.1.1. Autoetnografia

Autoetnografia metodo etnografikoaren barruan kokatzen den ikerketa-prozedura bat da, historian zehar prozesu hori bera, ikerketaren emaitzan duen eragina ulertzeko oso tresna erabilgarritzat hartua izan dena. Gainera, ikertzaileak giza esperientzia, esperientzia soziala eta kulturala sakonki atzematera zuzentzen denean, prozesu horretan ematen diren tentsioak eta paradoxak azaleratzen ditu. Autoetnografia baliabide berritzailea da bai oinarrizko ikerketan bai ikerketa aplikatuan, giza eta gizarte-zientzietan ezagutza eraikitzeari buruzko eztabaida aberasgarriak sortzen laguntzearekin batera (Muñoz, 2014).

Autore batzuen arabera (Anderson, 2006), autoetnografia terminoa XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran hasi zen erabiltzen, laurogeiko hamarkadan indar handia hartu zuelarik. Hasierako bertsioetan (Hayano, 1982), autoetnografia ikertzaileak bere kokapen sozioekonomikoagatik, lan-okupazioagatik edo jarduera espezifikoaren batean aritzeagatik, berezkozkat jotzen zuen talde sozial baten azterketari aplikatzen zitzaion (Blanco, 2012 testuan aipatua).

Laurogeita hamarreko hamarkadara arte Carolyn Ellis eta Arthur Bochner (1996), autoetnografia "ikerketa-metodo" gisa generoaren sortzaile eta sustatzaile aktiboak izan

ziren, aurrerago Laurel Richardson (2003) ere metodo honetan garrantzia handia hartu zuelarik. Era honetan, autoetnografiak, testuinguru sozial eta kultural batean kokatuta dauden kontakizun pertsonal eta/edo autobiografikoei, zein etnografoak ikertzaile gisa izan dituen esperientziei leku egiteko, bere ikusmoldea zabaltzen du (Blanco, 2012 testuan aipatua).

4.2.2. Ikerketarako datuen lorpena eta trataera

Lana aurrera eramateko aurretik aipatu dudan bezala, bi hilabetetan egindako Practicumeko egunerokoaz baliatuko naiz. Imanolekin elkartzen hasi ginenetik, gure Practicumeko tutoreak eskatzen ez bazigun arren, bi hilabeteko egonaldia idatziz jasotzea eskatu zigun, GRAL-erako baliogarria izango zitzaigulakoan.

Ikerketa autoetnografikoa izanda, azterketa bera nire esperientziatik ateratakoa izan beharko da, denbora guzti honetan zehar, ikertzaile gisa jokatzuz. Hori dela eta, Practicumean irakasle izateaz gain, ikertzaile papera ere hartu dut, gelan gertatzen zena eta aldi berean nik sentitu, ikusi eta ikasitakoa egunero paper batean idatziz. Horrez gain, datuak lortzeko ere, ostiralero Imanolekin egindako mintegietatik idatzitakoa eta bizitakoa kontuan izango dut, nire ikerketako bigarren zati honek ere paper garrantzitsua beteko duelarik. Idatzi guzti horiei esker, azterketa sakona egitea espero da, azkenean aurretik finkatu dudan helburua lortzeko asmoz.

4.2.2.1. Datuak biltzeko erabiliko diren tresnak

Sabinoren (1996) hitzetan, datuak biltzeko tresna bat, hasiera batean, ikertzaileak fenomenoetara hurbiltzeko eta haietatik informazioa ateratzeko erabil dezakeen edozein baliabide da (Camacaro, 2006 testuan aipatua). Hori jakinda, eta aurretik aipatu dudan moduan, ikerketa honetatik lortuko diren datuak, azkeneko praktikaldietan egindako egunerokoetatik, bai eta mintegien hausnarketetatik aterako dira.

Egunerokoa oinarrizko tresna profesional erraza da, ekintza modu kontzientean eta esplizituan deskribatzeko, aztertzeko eta baloratzeko aukera emateaz gain, erabaki oinarrituagoak hartzeko aukera ere ahalbidetzen duena (Porlán, 2008). Era honetan, azkeneko praktikaldietan egunero behatutakoaz, bizitakoaz eta jasotakoaz baliatuko naiz ikerketaren datuak aurrera eramateko.

Oser eta Baeriswylen (2001) "irakaskuntzako koreografien analogian" agertzen den ideia, mintegietan erabili dugun metodologia berdina eta ondorioz, memorietan idatzita ageri dena dela uste dut. Koreografia horren bidez, autore horiek, esperientziaren bidezko ikaskuntza deitzen diotenari egiten dio erreferentzia; izan ere, sekuentzia baten bidez (oinarrizko eredu), esperientziaren bidezko ikaskuntza bultzatu nahi da, sekuentzia horrek,

banakakoa zein elkarlaneko esperientzia zuzena eta hausnarketa konbinatzen dituelarik (Baños eta Álvarez, 2013 testuan aipatua).

Hori dela eta, eta idatzitako memorietan banakako zein taldean egindako hausnarketak burututa daudenez, mintegien memoriekin berdina egingo dut, izan ere, ostiralero bi orduz bizitakoa eta batez ere, bizipen horietatik sentitutakoa agerian utzi dut astero jasotako idatzi horietan.

Bi tresna horietaz baliatuz, “eduki tematikoaren analisiaren” bidez, idatzitako guztiaren mamia ateratzea espero da. Arbeláez eta Onrubiaren (2014) hitzetan, “Gaikako edukiaren analisiak” terminoen edo kontzeptuen presentzia kontuan hartzen du, haien artean dituzten harremanak alde batera utziz. Analisi honen barnean teknika ugari dauden arren, hurrengoak dira ohikoenak: maiztasun-zerrendak, gaikako identifikazioa eta sailkapena, eta testuinguruan hitzak bilatzea. Teknika horien barruan, terminoak edo kontzeptuak hautatu eta, batzuetan, definitu egiten dira, analisi-unitateak zehazten hasi baino lehen (Diaz, 2018 testuan aipatua).

Arbeláez eta Onrubiaren (2014) ustez, Gaikako edukiaren analisisien prozedura bi eratarik planteatuta egon daiteke: Batetik, modu deduktiboa, testuan aurretik ezarritako eta erreferente teorikoen bidez eraikita dauden kategoriak bilatzeaz arduratzen dena. Eta bestetik, induktiboa, kategoriak testuan irakurritakoagatik sortzen direnean ematen da, irakurtzen den edukiagatik kategoriak ondorioztatzen direnean. Autoreek kualitatiboki hitz eginez, indukzioaren garrantzia azpimarratzen dute, izan ere, ikerketa asko, dokumentuen irakurketatik hasten dira, testu baten ardatz nagusiak edo kategoria tematiko nagusiak identifikatzen saiatuz (Diaz, 2018 testuan aipatua).

Hori jakinda, aurretik azaldutakoa izango da eguneroko eta mintegien memorietatik ateratako datuekin aurrera eramango den analisia. Bertan ageriko diren kategoria tematiko nagusiak erabiliko baitira ikerketa honen emaitzak lortzeko. Sachsek (2005) esandakoaren arabera, bizipenak berez ez dira garrantzitsuak, garrantzitsua dena da esperientzia horiei emango zaien zentzua eta horiekin egingo duguna (Day, 2019 testuan aipatua). Berdina gertatzen da datuekin, datuak bakarrik ezer gutxi dira, hala ere, datu horiei ematen zaien trataerari esker emaitzak lortuko ditugu. Hori dela eta, daturik gabe ezingo dira emaitzak ulertu eta emaitzak bere aldetik, datuei esanahi bat eta zentzua ematen diotenak izango dira.

5. EMAITZAK

Ikerketa-lan hau aurrera eramateko, bi izan dira datuak lortzeko erabili diren tresna nagusiak; batetik, egunerokoetatik lortutako informazioa eta bestetik, mintegien

hausnarketetik eskuratutakoa. Bi tresna desberdin erabili izan ditudan arren, bi horietan idatzi eta hausnartutakoa erlazionatzeko aukera izan dut, izan ere, bietan antzekoak diren hitz eta kategorietan jarri dut fokoa. Hori dela eta, egunerokoaz eta mintegien hausnarketetaz baliatuko naiz nire helburuaren analisia burutzeko.

5.1. Egunerokoari eta mintegien hausnarketei esker lortutako emaitzak

Egunerokoa eta mintegien hausnarketak izan dira nire helburuaren analisia eta era berean, ikerketa honen emaitzak lortzeko erabili izan diren tresna nagusiak. Egunerokoa urte honetan egindako praktikaldietan oinarrituta dagoen bitartean, mintegien hausnarketetan zortzi astez ostiralero Imanolekin egindako bilketetan hausnartutakoa ageri da.

Prozesu honi esker, egun bakoitzean egindakoa eta sentitutakoa berbiritzeko aukera izan dut, analisia egiterako orduan, idatzi horiek guztiak berriro irakurtzeak, momentu horietara guztietara eraman bainau. Horrez gain, egoera bakoitza deskribatzeak eta horien inguruan hausnartzeak, nire burua gehiago ezagutzea ahalbidetzeaz gain, egoera batzuen zergatia eta irakasle moduan nire jokabide asko zalantzatan jartzea eragin dit, aurretik oso argi nituen egoerak eta kontzeptuak denbora luzez hausnartzera bultzatuz.

Egunerokoetatik eta mintegien hausnarketetatik ateratako idatziei esker, jarraian bertatik ateratako gai batzuk aztertuko ditugu, gai horiek lau kategorian nagusitan multzokatuak izan direlarik: (1) praktikumean eta mintegietan **sentitutako emozioek** nigan izan duten eragina, (2) Sentitutako emozio horiek nire **harremantzeko gaitasunean** izan duten eragina, (3) **mintegien inguruko hausnarketek** prozesu osoan zehar erakutsi didatena eta, (4) Prozesuarekin lortutakoa: **kontzientziazioa** piztea. Hurrengo lerroetan, lau kategorian hauek lortutako datuen arabera azaltzen saiatuko naiz, autore ezberdinekin elkarrizketa bat sortuz. Honekin, praktikumeko mintegietan metodologia aktiboak, eta praktikaldietan egunerokoak erabiltzeak nire konpetentzia emozionaletan, bai eta nire harremanak sortzeko gaitasunean duten eragina aztertzea izan dut helburu.

5.1.1. Praktikumean eta mintegietan sentitutako emozioek nigan izan duten eragina

Aurretik aipatua izan den moduan, harremanak emozioa dakar berarekin, eta azkenengo hori da tutorea ezagutzerako orduan agerian uzten dena, emozioa. Tutorearekiko edo erreferentziazko irakaslearekiko sortzen den emozioa, ikasleak irakaskuntza- eta lanbide-jardueratik zein ekintza pertsonaletik, irakaslearekiko sentitzen duen emozio, sentimendu edo sentsazio giza-pertsonalari dagokio (González, 2012).

“Hasieran urduri nengoela aitortu behar dut, tutorearekin harremanak beti kezkatzen nauelako gehien. Zer pentsatuko zuen nitaz? Nola hartuko ninduen? Kasurik egingo al

zidan? Galdera horiek guztiak nire burutik zeuden bitartean, tutorea ezagutu nuen.” (Egunerokotik aterata)

Irakasleen gaiarekin jarraituz, nire GRAL-eko zuzendaria izango zena ezagutu nuenean, egoera desberdina izan zela aitortu behar dut, eta emozioa bazegoen ere, galderak desberdinak izan ziren, zuzendaria nire azkenengo urteko irakasle moduan ezagutu bainuen.

“Kasualitateak kasualitate, bigarren egunean gelara iritsi eta Imanol Santamaria deituriko irakasle batekin topo egin genuen. Gure irakaslea izango zela azaldu zigun orduan, kulturartekotasunaren hezkuntza politikak irakasgaiean berarekin egongo ginela. Orduan pentsatzeari ekin nion, bera zen, gizon hura izango zen nire GRAL-a eraikitzen lagunduko zidana, noiz hasiko ginen lanean? Ni nor nintzen jakingo zuen? Gustatuko al zaio nire idazteko modua? Eta garrantzitsuena, zein izango da nitaz izango duen lehenengo iritzia?” (Mintegiaren hausnarketatik aterata)

Txikitatik besteek gure inguruan dituzten iritzia gudan eragina izateko hezten gaituzte. Senide zuzenen ahotik zenbat aldiz entzun behar izan dugu: “Nora zoaz horrela jantzita? Praka horiek ez doaz bat kamiseta horrekin. Aldatu zaituzte” eta abar. Jaiotzen garenetik, besteek esaten dutenak baldintzatzen gaitu, iritzi negatiboak nolabaiteko beldurra izatea saihestezina bihurtu delarik (Muñoz, 2018).

Kasu honetan, lehenengo egunean hurrekin izandako eta mintegiaren lehenengo egunean hitz egiten hasi orduko sententzia izan zen hau, haurtzako bai eta nire beste ikaskide eta Gral-eko zuzendariarentzat ezaguna ez nintzenez, nik esandakoak edo egindakoak haiengan iritzi negatibo bat suertatzearen beldur nintzen, zerbait gaizki egitearen beldur.

“Haurrei dagokienez, batzuk azkar hurbildu ziren niregana (batzuk ezagunak nituen) eta beste batzuk aldiz, gelan ez banengo bezala egin zuten. Haur horiek ezagutzeak, nolabaiteko segurtasuna eman zidala aitortu behar dut, haiekin igaro nituen niretzat praktikaldi osoan zehar dauden ordu zailenak. Eguneko hausnarketa egin behar badut, haur askok kasurik egiten ez zidatenaren sententziarekin gelditu nintzen. Egia da, lehenengo eguna zela, eta haur askok esaten nienari jaramon egiteaz gain nirekin denbora luzez egon zirela, baina beste asko negatiboki paso egiten zutela iruditu zitzaizkidan, eta horrek, gaizki sentiaraztea egin ninduen.” (Egunerokotik aterata)

“Nire kasua lehenengo izan zen aztertzen, kasua kontatzen nuen bitartean, eroso sentitu nintzen, azken finean, gertaera polita zen guztiarekin konpartitzeko. Hala ere, gertaera azaltzen bukatu nuenean, tutorearen galderen bitartez nigan zentratzea lortu zuen, besteengan zentratzea baino. Nigan jarri zuen fokoa eta horrek egoera batzuetan, deseroso

sentiarazi ninduen. Ni nintzen hitz egiten zegoen bakarra, eta ez nekien ondo zer zen nitaz espero zena.” (Mintegien hausnarketetatik aterata)

Errekonozimendua pertsoneri beren lana eta ahalegina onetsi eta onartzen dela adieraztean datza. Pertsonok gure lana ondo egiten dugunean, jarreraz, arrakastaz eta esfortzuaz konturatzea eta goraiatzea da. Baloratuta eta estimatuta sentitzen diren pertsonak balorazio hori eskertzen jardungo dute, eta, beraz, lan munduan adibidez, haien eginbeharrak aurrera ateratzeko, produktiboenak ez ezik, inplikatuena eta motibatuenak izango dira (Barrachina, 2018).

Prozesu honetan zehar, baloratua sentitzearen emozioa bizitzeko aukera izan dut, niretzat sentitu daitekeen emoziorik onenetarikoak. Haurren garapen prozesuaren barnean murgiltzeko helburuarekin, egindako lana edo edozertarako nire irakasle figura kontuan izatea, hilabete horietan zehar motibatuago eta horretan inplikatua egotea egin zuen guztiz, hiru urtetan zehar, lehenengo aldiz irakasle nintzela sentitu izan dudalako momentu batzuetan, eskolako tutorearen lanari esker.

“Tutoreak tailerrera ondoko gela prestatzen zuen bitartean, niri hamaiketako banatzeko eskatu dit eta horrek poztu egin nau (tutore honek hiru urtetatik presenteen eduki nauena izan da), bitartean berak gelako espazio jakin batzuk prestatu zituen hostoen tailerra burutzeko. Ondo sentitu naiz, momentu batean eta ondoko gelan bazegoen ere, haurrak nire “ardurapean” utzi dituelako, nigan konfiantza hori izan duelako.” (Egunerokotik aterata)

Prozesu luze horietan zehar agertu zen beste emozio bat deserosotasunarena izan zen. Deserosotasunari batzuetan alferkeria deitzen diogu, beste batzuetan beldurra, urduritasuna edo antsietatea; egoeraren arabera arretaz janzten dugu, batzuetan "ondo doakit horrela", edo "bizitza osoan horrela egin da", eta gure "erosotasun-eremutik" ez ateratzeko jartzen ditugun aitzakia guztiak dira, eremu ezagun horretatik ateratzen den guztia, normalean deserosoa baita (Jiménez, 2015). Egoerak edo pertsonak ez dira berez deserosoak, deserosotasuna gure esperientzia pertsonaletik sortzen da, eta gu gara egoera edo pertsona jakin batzuen aurrean deseroso sentitzen garenak. Ikuspegi hori hartzen denean, gure arretaren fokua aldatzen dugu; kanpora begiratzeari uzten diogu, gure barruan erantzunak eta proposamenak bilatzeko. Deserosotasuna autoezagutzarako eta hazkunde pertsonalerako bidea da. Sentsazio horren jatorrizko kausak aurkitu nahian, gogaikarriak edo deserosoak zaizkigun egoerak saihesteari uzten diogunean, eta egoera horiek onartzen ditugunean gertatzen da (Aragón, 2019).

Esan bezala, bi esperientzia hauetan erosotasunetik kanpo sentitu naizen egoerak bizitzeko aukera izan dut ere. Lehenengo kasuan, Practicumean, pertsona berriekin

espazioak elkarbanatzean emozio hau piztu zitzaidan, haiekin espazioa elkarbanatzean baino, bi irakasle eta beste praktikako ikaslearekin harremantzerako orduan.

“Arratsaldeetan egia esan, pixkat deserosoago sentitzen naiz. Nire tutorea siesta gelan gelditzen da umeak esnatzen direnean komunera laguntzeko eta ondoren gure gelara eramateko, eta beraz, ez ditut orduak berarekin igarotzen. Beste bi andereñoekin ematen ditut orduak, eta haiekin ondo egon arren, ez dut hainbeste elkarrizketarik. Beste praktikako bat ere dago, ni baino denbora gehiago daramana bertan, eta berak nagusitasunarekin begiratzen didala sentitzen dut askotan, eta horrek, lehenengo eta bigarren egunean deseroso sentiarazi nau.” (Egunerokotik aterata)

Bigarren kasuan, espero ez nuen momentu batean gertatu zen, mintegietako batean, irakasleak niri buruz hitz egitean, txikitatik gustatu ez zaidan izen batekin deitu zidanean.

“Mintegia hasi eta nire lehen sentimendua lotsa izan zen eta deserosotasuna, irakasleak Estitxu deitu ninduelako, eta txikitatik gorroto dudan izena delako. Ez dakit ondo zergatik eman zidan lotsa egoera horrek, baina nire masailak gorri-gorri sentitu nituen, eta lotsa sentitzen dudan bakoitzean bezala, deseroso egon nintzen momentua izan zen. Ez zitzaidan egoera hori gustatu, ez ezergatik, baizik eta lotsa ematen didan bakoitzean gorri jartzeak deseroso sentiarazten nauelako”. (Mintegien hausnarketetatik aterata)

Besteek epaituko gaituzten beldurra beldur naturala eta normala da. Haurtzaroan gure autokontzeptua eta autoestimua sortzen ditugu, baita gure identitatearen oinarriak ere, besteek gutaz duten iritzian oinarrituta. Kanpoko balorazioak hari buruz egiten dugun interpretazioarekin eta harekin izandako sentimenduekin bat egiten du, eta, horrela, geure buruaz dugun pertzepzioa sortzen dugu: autokontzeptua, autoestimua eta identitatea. Epaitua izateko beldurra eta besteen iritziarekiko kezka haurtzaroan agertzen dira, kritikarik jaso nahi ez ditugunez, kezka honek, besteei atsegin suertatzeko nahian, gure izaera aldatzea ekartzen du askotan (Rodríguez Ruiz, 2019a).

Beldur hori askotan izan dudana arren, practicumean bai eta mintegietan kontrakoa sentitu dudala esan daiteke, askatasunez eta naizen modukoa izanda epaitua sentitzeko beldurra izan ez dudalako, eta are gehiago, epaitua sentitu baino, nire izateko modua erakusteko konfiantza luzatu didatelako.

“Oso ondo sentitu naiz dramatizazio gelan, lotsa alde batera utzita jokatu dudalako eta haur eta irakasleekin ordu oso ona igaro dudalako. Ez naiz batere epaitua sentitu, eta horrek lehenengo egunetako lotsa alde batera uztea eragin du, haurrekin batera elkarlanean aritzearekin batera.” (Egunerokotik aterata)

“Mintegi horiek ihesbidetzat balio izan zaizkit askotan, ostiral arratsaldetan unibertsitatean bi orduz egoteak aspergarria zirudien arren, aste osoko karga emozionala

askatzeko balio izan zait niri, babesleku moduan neukan, babestua sentitzen bainintzen pertsona horien artean. Azkenengo mintegia izango zen hura, eta pena handia ematen zidan agur horrek. Mintegi horietan ondo sentitzen nintzelako, eroso, esan bezala, aste osokoa askotan bertan botatzen nuelako, mintegi horietan epaitua sentitzen ez nintzelako.” (Mintegien hausnarketetatik aterata)

Ikaslea batzuetan balduta senti daiteke eta aurrean daukan edozein arazo konpontzeko gai ez dela pentsa dezake. Arazoa ezagutzen ez denean ebazpen-prozesuari aurre egiteak, ziurgabetasun-egoera bat dakar, prozesuaren barnean dagoena eta lasaitasunez kudeatu beharko dena (Fernández, Suárez-Manzano, López-Serrano, De La Torre-Cruz, Herencia, Hernández, Martín, Ocaña, Uceda, Belinchón, De Diego, Romero-García, Suárez-Ortega, 2018).

Galduta sentitzea practicum guztietan gertatu izan zaidan sentimendua izan da. Azken finean, dena da berria guretzat, ez gaude horretara ohituta, urte batetik bestera eskola, irakasleak, haurrak... dena aldatzen da, eta irakasle izateko bidean hiru practicum bizi behar ditugunez, egoera berri horiei aurre egin behar diegu, bigarren irakasle gisa, erreferentziazko tutorearen laguntzarekin. Haurrek irakasle moduan ikusten gaituzte, eta edozein arazoren aurrean, guregana jotzen dute, haien arazoaren konponbidea gure eskuetan dagoela pentsatuz. Momentu horietan, zer egin ez dakidala, balduta sentitzen naiz, haien larritasuna baretzeko konponbidea izan nahi dut askotan, baina batzuetan ez dut horrelakorik lortzen, horrek balduta sentiarazten nauelarik.

“Haien ezinegona lasaitzen saiatu naiz, baina oso zaila egin zait batzuekin, ezinegona lasaitu ezinik negarrez jarraitu dutelako. Askotan egoera horien aurrean nagoenean, balduta sentitzen naiz, ez dakidalako ondo zer egin behar dudana, zer den egokiena kasu horietan, irakasle baten begiradapean nago momentu guztian, eta ez dakit nik egindakoa ondo irudituko zaion.” (Egunerokotik aterata)

Haserrea gure barneko bakarrizketa liluratzen duen emozioa da, pentsamenduan, hitzean eta ekintzan bahitzen gaituena. Defentsarako arma bat da, gaizki erabilita, gure aurka bihur daitekeena eta hazten utziz gero, benetako mina egin dezakeena. Ez zaigu jendeaurrean erakustea gustatzen, gure ezaugarri pertsonal eta emozionalak gaitzesten dituela pentsatzen dugulako. Horrez gain, haserrea adierazteak beldurra ematen digu, hori dela eta, gure etxean bakarrik erakusteko joera dugu, ezagutzen gaituzten pertsonekin batera, haiek epaituko ez gaituztenaren esperantzaz (Aldana, 2018).

“Egia esan, egoera horretan haserretzearekin batera, deseroso sentitu nintzela aitortu behar dut, izan ere, amorru handia ematen dit jendeak haserretzen ez naizela edo inoiz haserre ikusi ez nauela esaten didanean. Hori esatean, barea naizela eta izaerarik ez

dudala ulertarazten dit, baina ni ez naiz horrelakoa, haserretzen naiz, asko gainera, baina mintegi horiek inoiz ez didate haserrarazi. Hala ere, gogoratzen dut nire aurpegia nola zihoan gorritzen eta bihotza gero eta azkarrago somatzen nuen, haserretzen naizenean bezala.” (Mintegien hausnarketetatik aterata)

Emaitza hauek ikustean, emozioak harremanak sortzearen motorra direla konturatu naiz. Etorkizunean ikasgelan emozioak edonon egongo dira, hurrengan, beste irakasleengan, gurasoengan... Horretarako, horiek kudeatzen jakin beharko dugu, haurren garapen prozesua egokiena izatea nahi badugu. Horrez gain, emozioek berebiziko garrantzia izango dute eskolan sortuko diren harremanetan, harremanak sortzerako prozesu horretan emozio ugari egongo baitira atzetik, harreman horri zentzua emango diotenak.

Jose Maria Tororen esaldi batek dio ez duela ezertarako balio ikasleek Neptuno unibertsoan kokatzen jakitea, emozioak kudeatzen ez badakite. Horretarako, beharrezkoa da irakasleek eurenak kudeatzen jakitea, ondoren ikasitakoa ikasleei transmititzeko. Emozioak ikaskuntza garraiatzen du (Velasco, 2019), eta eskolan ematen den ikaskuntza garrantzitsuenetarikoa bertan sortzen diren harremanak dira.

5.1.2. Sentitutako emozio horiek nire harremantzeko moduan izan duten eragina

Vygotskyren garapen kognitiboaren teoria soziokulturala gizarteak norbanakoaren garapenean egiten dituen ekarpen garrantzitsuetan zentratzen da. Teoria horrek garapen bidean dauden pertsonen eta bizi diren kulturaren arteko elkarreragina nabarmentzen du. Gainera, Vygotskyren garapen kognitiboaren teoria soziokulturalak ere giza ikaskuntza, neurri handi batean, prozesu sozial bat dela iradokitzen du (Rodríguez, 2019).

Pertsonen arteko harremanak bi pertsona edo gehiagoren artean ezartzen direnei deitzen zaie; emozioetan, sentimenduetan edo gizarte-jardueretan oinarritu daitezkeenak, besteak beste. Harreman horiek komunikaziotik sortzen dira, hala ere, ezingo da harreman honen funtziorik gauzatu, gizakiak beste gizaki batzuekin elkarreraginean informazioa partekatzen duen arte (Bran, 2015).

“Gaurkoan erosoago sentitu naiz, irakasleekin hurbiltzen hasia naiz jada eta elkarrizketa gehiago ditugula esan daiteke, hala ere, irakasle bakoitza berera doa eta haurrekin egoten gara gehienbat, askotan gure arreta deitzen dutelako.” (Egunerokotik aterata)

Emozioak norberari, besteei eta harremanei buruzko pentsamenduek eta pertzepzioek zehazten dituzte. Alde horretatik, gure emozioek gure harremanetan eragina izango dute, eta, aldi berean, harreman horiei buruzko ideiek eta pertzepzioek egoera emozional jakin batzuk eragingo dizkigute. Elkarrekintzek gutxienez bi pertsona inplikatzeko eskatzen dute; elkarrekintza horretan, pertsona bakoitza aktiboki parte hartzen du, haren

funtzionamenduan eraginez. Horregatik, harremanarekiko ditugun sentimenduek harremanaren funtzionamendua zehaztuko dute hein batean, bai eta bestearen pentsamendu eta sentimenduei eragin ere (Rodríguez Ruiz, 2019b).

“Gogoratuko ditudan horietakoa izan da gaurko eguna. Harrituta eta era berean hunkituta utzi nauen mezu batekin esnatu naiz eta berehala ikastolara joan behar izan naiz betiko moduan, ostiral bat gehiago. I.k batzuetan egiten duen arren, gaur atean nire zain itxaroten egoteak inoiz baino ilusio handiagoa egin dit, eta hori dela eta, korridoretik ikusi garenetik lurlean belauniko jarri eta nire besoak ireki ditut bera nigana korrika etorri denarekin batera, eta besarkada bat eman diogu elkarri, egun horretan jasotako besarkada politena seguruenik, eta baita ere beharrezkoena.” (Egunerokotik aterata)

Vygotskyren teoriak ere jokoak ikaskuntzan duen garrantzia azpimarratu zuen. Gurasoek eta irakasleek testuinguru hori erabil dezakete haurren garapen hurbileko eremua non dagoen jakiteko eta bertara eramateko. Eremu horretan, ikaslearentzat benetako erronka diren zereginak daude; erronka multzo hori, garapen-maila kontuan hartuta, euskarri txiki batekin gainditu ahal izango delarik (Rodríguez, 2019).

“Egia esan, ez nuen ezer pentsatuta eramaten, egoeraren arabera eta haurren gogoen arabera jokatzeko nuen zerbait egiterako orduan. Gure harremana eta haien harremana sendotzeko egin ahal genituen jarduerak ugariak ziren, baina haien erosotasuna eta ongizatea bermatu nahi nuen beti, eta ondorioz, egunero jarduera batzuk ez ziren espero bezala ateratzen. Hala ere, beste estrategia batzuk bilatzen nituen, eta norbaiten deserosotasuna ikusiz gero, jarduera moldatu edota aldatzen nuen.” (Egunerokotik aterata)

Practicum III-a nire ikastola izandakoan egitean, duela zenbait urtez nire irakasle izan zirenekin elkartzeko aukera eman dit, eta horrek kasu batzuetan izan bada ere, ilusioa sortu du nigan. Marcus Valerius Martialis-en hitzetan, "Iraganaz gozatzea bi aldiz bizitzea da". Oroitzapenetan birsortzea lagungarria da gogo-aldartearen lasaitzeko, gure autoestimua handitzeko eta pertsonen arteko harremanak sendotzeko, nostalgia, oreka eta ongizate psikikoaren iturria baita. Halaber, gogoratzeak gure loturak sendotzen lagun diezaguke; beste pertsonarekin lotzen gaituena gogoratzean, momentu horretan zein garrantzitsua eta baliotsua izan ginen bata bestearentzat edo irakasle moduan bere babesak zer nolako eragina sortu zuen gudan (Aldana, 2019).

“Ilusio handiz eta urrun zegoela agurtu dut eta bera korrika batean etorri da niregana aurpegian irribarre handia zuelarik. Poztasun handiz momentu batzuk gogoratzen egon gara, berriro ere, garai horretara bueltatuz, eta ezin zoriontsuago joan naiz etxera, nire bizitzako parte izan diren momentu horiek gogoratu ostean.” (Egunerokotik aterata)

Attachment edo Loturaren teoria (ingelesez: Attachment) 50. hamarkadan Bowlby eta Ainsworthen eskutik etorri zen teoria bat izan zen. Urteen poderioz, teoria honi hainbat ikerketen emaitzak gehitu zaizkie, guztiek giroak, lehen haurtzaroan jasotako zaintzekin batera, haurraren garapena zenbateraino markatzen duen frogatu dute, ondorengo lorpenei eta etorkizuneko aukerei eraginez. Horregatik, gaur egun jakina da haurrak bere zaintza ematen duten pertsonekin (gurasoak, familiako edo komunitateko beste kide batzuk edo zaintzaile profesionalak) ezartzen dituen loturen kalitateak berebiziko garrantzia duela, haurraren ongizatean ez ezik, haren garapen emozional eta sozialean ere (Sánchez, 2016).

“Berebizikoa da harremanen lanketa eta zaintza egitea txiki-txikiak direnetik, eta ezin garrantzitsuagoa da guk irakasle moduan gure haurrei transmititu eta irakatsiko dieguna, gurekin pasako baitituzte eguneko ordu gehienak eta gu izango baikara haien erreferente nagusietako bat. Horregatik, hautatu dut hain garrantzitsua iruditzen zaidan gai hau, harremanak baitira nire ustez Haur hezkuntza gidatzen duten motorretako bat.” (Mintegien hausnarketetatik aterata)

5.1.3. Mintegien inguruko hausnarketek prozesu osoan zehar erakutsi didatena

Hausnarketaren esanahiari dagokionez, aipatzekoa da hitz honen jatorri etimologikoa islatzea esan nahi duen latinezko “reflectere” hitzetik datorrela. Era berean, norberaren ekintzei eta pentsamenduei buruzko ezagutza ahalbidetzen duen kontzientzia-ekintza gisa defini daiteke (Ferrater, 1979). Hausnarketa giza pentsamendu mota bat bezala uler daiteke, “Sinismen ororen edo ustezko ezagutza formaren azterketa aktibo, iraunkor eta arduratsuari dagokion pentsamendua, hain zuzen ere” (Dewey, 1989, 25. or.: Nocetti eta Medina-Moya, 2019 testuan aipatua).

Azkenengo urte honetatik ikasi dudana esanguratsuena aukeratu beharko banu, edozerren inguruan eta edozein momentutan hausnartzen ikasi dudala esango nuke. Laugarren mailan, lehenengo egunetik hausnartzera bultzatu gaituztela esan daiteke, eta ohitura horrek, azkenean, nire bizitzan gertatzen zen guztiaz gogoeta egitera eraman nau. Hori dela eta, lan honen beste kategoria moduan aukeratu dut, egunerokoetan bai eta mintegien idatzietan, hausnarketa ugari agertzeaz gain, momentu bakoitzetik irakasle eta pertsona moduan zer atera dudana agerian utzi dut idatzitako bakoitzean.

Irakasle-ikasleen arteko harremanaren kontzeptua elkarreragin gisa hasi behar da; hau da, elkarrekikotasun eta elkarrekiko eraginen arteko harremanari dagokio. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua haurren, irakaslearen eta ikaskideen artean ikasgelan gertatzen diren elkarrekintzek baldintzatzen dute, horiekin batera ingurune fisikoak ere baldintzatzen duelarik (González Blanco 2004: Gordillo, Fernández, Herrera eta Almodóvar, 2016 testuan aipatua).

“Irakasle baten baliabide nagusia zein den erakutsi digu eta hainbestetan hitz egin eta gero, barrurarte sartu zaidan kontzeptua izan da hau. Berari esker badakit irakasle baten baliabide nagusia harremanen bidez loturak sortzeko gaitasuna dela. Hori dela eta, etorkizunean haurrekin bai eta haien familiako kideekin harremana zaindu behar dudala deritzot, harreman honetan oinarrituko baita haurraren garapen integrala. Horrez gain, gurasoekin harremana zaintzeari ere garrantzia handia emango diot nire lanbidean, gurasoek eta irakasleok alde berera egin beharko dugulako arraun, ezer gutxi egingo dugu ikastolan etxean guztiz kontrakoa egiten badu haurrak. Irakasle eta guraso moduan, haurra izango dugu lehentasun gisa, eta haren ongizatea izango da harreman honen helburu nagusia.” (Mintegien hausnarketetatik aterata)

Eremu askotan gizakiok berdin jokutzen dugu. Ez ditugu arauak zalantzatan jartzen ulertzen ez baditugu ere. “Gauzak beti izan dira horrela” edo “dagoena da” jende gehienak egunerokotasunean dituen esaldiak dira. Ziurgabetasuna, jakin-mina, harridura eta, are garrantzitsuagoa, ulergaitasuna aitortzea eta onartzea funtsezko faktoreak dira bakoitzaren ezagutza eta trebetasunak garatzeko prozesuan (Outrebon, 2017). “Gure ezagutza guztiak egiten ditugun galderen ondorio dira, eta hori da, gauzak zalantzan jartzeko dugun gaitasuna, gizakiok dugun tresna intelektual garrantzitsuena” (Postman eta Weingartner, 1969, 221.orr: Echeverría, 2007 testuan aipatua).

“Jakingo banu naizen modukoa izanda onartuko nindutela, hainbeste irribarre egingo nuke? Mintegi hauek gai batzuen inguruan asko hausnartzera eramane nauten, betidanik positiboa eta ona zena zalantzan jarrita horren inguruan asko pentsatu izan dut, eta orokorrean, nire bizitzan zehar gertatzen zaizkidan inguruan askoz ere gehiago pentsatzen dut orain. Egun horretatik, galdera hori askotan burura etortzen zait, irribarre hori defentsa moduan eta besteek nire inguruan iritzi positibo bat izateko erabiltzen dudala uste dut, horretara ohitu bainaiz 21 urte hauetan zehar.” (Mintegien hausnarketetatik aterata)

Familien laguntzarekin batera eskola emozionalki adimendunak sortzeak, emozioak haien kabuz kudeatuko dituzten ikasleak izatera eramango gaitu, bizitzan zehar izango dituzten egoera kaltegarriak modu positiboan aurre egiten jakingo dutenak. Era berean, trebetasun sozial eta emozional horiek ikasita, ikasgelan ezagutza gehiago bereganatuko dira, egoera gatazkatsuak murriztuz, ikastetxearen bizikidetzak hobetuz, talde-lana eta lan hori bezalako trebetasun garrantzitsuak garatzen lagunduz, autonomia, asertibitatea, gatazkak maneiatzea... Eta, batez ere, helduaroan pertsonen arteko harremanei lotutako nahasmendu emozionalak izateko joera txikiagoa izanez (Alagarda, 2015).

“Irakasle batek nire aurreko praktiken inguruan galdetu zidan, eta ondoren, irakasle moduan bere ikuspuntua eman zigun, hitz horiek entzutean nire barnean hausnarketa sakon

bat hastearekin batera. Bere ustez, haur hezkuntzan landu beharko genukeena edukiak baino, emozioak izan beharko lirateke, askotan helduek ere haien emozioak kudeatzen ez dakitelako. Elkarrizketa horren ostean, hitz egindakoaren inguruan pentsatzen eman nuen arratsalde osoa, elkarrizketa horrek zerbait sortu zuen nigan, eta egun horretatik gatazka baten aurrean eta orokorrean irakasle izateko modua aldatzeko erabakia hartu nuen, arrez geroztik, elkarrizketa horretan esandakoa aurrera eramateko helburuarekin.” (Egunerokotik aterata)

Aniztasunarekiko jarrera positiboa sustatzea funtsezkoa izan beharko litzateke, bai etxean, bai ikastetxeetan. Ikasleak haiekiko desberdinak diren haurrekin elkarlanean eta elkarbizitzen jakitea berebizikoa da, bai eta errespetatuak izateko eskubide berdina dutela ulertzea, funtsezko ikasgaia izan beharko luke. Bizi dugun errealitate anitza positiboa eta aberasgarria dela sinetsita bakarrik egin diezaiekegu aurre gure ikastetxeetako ikasleen interes, motibazio, gaitasun eta beharretara egokitutako hezkuntza eskaintzea eragotz diezaguketean beldur eta aldaketarako erresistentziari, bai eta irakasleen prestakuntza on eta zabalaren garrantziaz aurre egiteari ere. (Justicia eta López, 2011: López eta Córdoba, 2017 testuan aipatua).

“Goizero bezala, ikastolara iritsi bezain pronto haurrek zirkulazio librea izan dute. Berriz ere, logopeda gure gelan sartu da eta haurrarekin eta beste batzuekin margotzen egon da, hizkuntza lantzearekin batera. Haurren jokaerak berarekiko aztertzen egon naiz, bai eta logopeda berarena ere, eta haurrek oso normalizatua dute emakume horren presentzia gelan, haien ikaskidea gelan guztiz integratua dagoela ikustearekin batera. Polita da oso haurrek aniztasun funtzionala gertutik ikustea eta harekin bizitzea, azkenean eskolak gizartearen isla izan behar du, eta aniztasuna da gela batean aberastasuna ekartzen duena.” (Egunerokotik aterata)

Lehen haurtzaroa neurozientziatik eta portaera aztertzen duten zientzietatik sortutako kontzeptua da, garatzen urteak daramatzana. Haurren bizitzako lehen urteetan garapen fisikoak, kognitiboak, linguistikoak eta sozioafektiboak duen garrantzia nabarmentzeaz arduratzen da (Center on the Developing Child Harvard University). Horrela, haurrek lehen urteetan bizi dutena bizitza osorako mantentzen da, lehen esperientzia horiek baitira haurren arkitektura neuronalaren oinarriak finkatzen dituztenak, bai eta ikasteko gaitasunaren, osasunaren eta bizitzan hartuko duten jokabidearen sendotasuna edo ahulezia zehazten dutenak (Kouamé, 2019).

“Irakaslearekin komentatu nuenean, berak esan zidan behin baino gehiagotan gertatu zaion egoera izan dela, amantalararekin esperientzia txarren bat izango zuelako beharbada (haurreskolan komentatu zidan, eta haurreskolen inguruan hitz egiten egon ginen, bertan

bizitakoa eta orokorrean lehenengo urtetan bizitakoa haurrengan eragin handia izaten duelako).” (Egunerokotik aterata)

Gradu baten hautaketa ikaskuntza profesionala baino lehen dator. Horregatik, oso garrantzitsua izango da ikasleei emango zaien orientazioa, ikaslea egokiro gidatzea helburutzat izango duena. Era honetan, ikasleak bere jarrerak deskubritu, bokazioa zehaztu eta bere bizitzan garatuko duen lan mota aukeratzeko ahalmena izango du, besteak beste. Gazteak gradu bat egokiro hautatzen duenean, berarekiko zein gizartearekiko gogobetetzea eskuratzen du, haien interesetan jabetasuna dago, Bohoslarskyk “nortasun okupazionala” izendatu zuena (de Amorós, 1993).

“Bueltatzeak zoriontasunez bete ninduen, eta gero eta argiago utzi zidan duela lau urte hartutako erabakia guztiz zuzena izan zela. Nire burua eskola batean ikusten dut guztiz, Haur hezkuntzako gela batean hain zuzen ere, hurrekin batera ikasiz, eroriz, altxatuz eta biziz.” (Egunerokotik aterata)

5.1.4. Prozesuarekin lortutakoa: kontzientziakoa piztea

Unibertsitate etaparen bukaerak beste etapa berri bat dakar berarekin, ordurarte bizitakoarekiko desberdina izango dena. Ez da bukatzen den lehenengo etapa, aurretik haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta batxilergotik igaro baikara, baina bai desberdina, oraingo honetan ez baikaude ezertara bideratuta, ez baitakigu nora eramango gaituen bizitzak. Hori dela eta, etapa honen bukaera den honetan, eta bizitakoak bizi eta gero, kontzientzia pizten hasi zaidala esan dezaket, arlo batzuen inguruan bai behintzat.

Hasteko, lau urte hauetan zehar eta bereziki azkenengo urte honetan, egiten dugunaren pentsamendua, errealitatean egiten dugunaren oso desberdina dela konturatzeko baliogarria izan zait. Hamachek-ek (1999, 209.orr) adierazi zuen bezala, “Kontzienteki zer dakigun irakasten dugu; inkontzienteki, aldiz, nor garen” (Korthagen, 2004 testuan aipatua).

“Nire txanda iritsi zenean irakurtzen hasi nintzen, hausnarketa eskasa egin nuela pentsatzen nuen bitartean. Nire ezusterako, irakurtzen bukatu nuenean, irakasleak lan sakona egin nuela esan zidan, deskribapen hutsa egin baino, horren inguruan ere hausnarketa egin nuela. Hitz horiek poztu ninduten bai eta ziurtasuna eman ere, hasieran burutatakoaz batere harro ez bainengoen. Hala ere, nire lana baloratua izan zela sentitu nuen orduan, mintegiaren hausnarketek bere lana dutelako atzean, eta balorazio on batek lanean jarraitzera bultzatzen duelako.” (Mintegien hausnarketetatik aterata)

Horrez gain, Haur Hezkuntzako etapak haurren garapenean eta orokorrean haurren bizitzetan duen garrantzia ikusi dut, bai eta gertutik bizitzeko aukera izan ere. Haurra bere garapenaren eraikitzaile aktiboa da, inguratuta dagoen familiak eta kulturak garapen hori bere osotasunean ematea posible egiten dutelarik. Hori dela eta, haurraren lehenengo

urteetan, ama edo beste pertsona adierazgarri bat abiapuntutzat hartuta, ikaskuntza matrize batzuk finkatzen dira, testuinguru honetan, haurren inguruak garapena sustatzea edo oztopatzea eraginez. Haurren gizatiartzea bere inguruan dauden pertsonak subjektu pasiboak edo haren garapenaren epaile ez direnean ematen da, gizatiartzea bere ingurukoek gidatu, antolatzen lagundu eta egokitzeko baliabideak ematen dizkiotenean emango da (Aires, 2016).

“Haur hezkuntzako etapak duen garrantziaz konturatu naiz gaur, Haur hezkuntza ez da haurrak jolasten edo haiekin jolastera mugatzen, etapa honetan haurra harremantzen hasten da, etxetik eta familiatik kanpo beste pertsona batzuekin elkarreagiteko momentua hain zuzen ere. Eskolarekin lehenengo kontaktua izango duen etapa da, errealitate desberdinak ikusteko aukera, balore eta sinismen ezberdinak dituzten hurrekin elkarbanatzeko momentua, berdinekin eta hainbat urtez elkarrekin igaroko dituzten pertsonak ezagutzeko momentua. Era labur batean esanda, haurrak elkarbizitzen ikasten duen etapa da”. (Egunerokotik aterata)

Practicumean zehar, urteak oso azkar igaro direla konturatu naiz, bereziki txikiagoa nintzenean ikastolan igarotako momentuak urte batzuen buruan berriro bizitzeko aukera izan dudanean. Gure bizitza hasten eta bukatzen diren zikloz beteta dago, horrek hasiera eta amaiera ugari biziko ditugula esan nahi duelarik. Batzuk lehen pertsonan biziko ditugu, gure bizitzako etapak izango baitira, eta beste batzuk, ordea, inguratzen gaituzten pertsonen bidez (Calle, 2017).

“Nire ikastola izandakoa den honetan, egun hau hainbat urtetan bizitzeko aukera izan dudala aitortu behar dut, hala ere, gaurko egunean beste ikuspegi guztiz desberdin batetik, irakaslearen ikuspegitik. Haurren ilusio aurpegia ikusteak niri ere ilusioa egin dit, eta nire haurtzaroa etorri zait burura. Harrigarria, atzo urduri bazeuden gaur oihuak, barre-algarak, haurrak leku batetik bestera ezin gelditu egon dira, eta gu haiekin egun honek sortzen dituen urduritasunak gaurkoan irakaslearen azaletik biziz.” (Egunerokotik aterata)

Identitatea berezitasuna ematen digun hori da (ezaugarriak, atributuak), modu pertsonalean edo taldean besteengandik bereizten gaituena. Modu dinamiko eta jarraituan eraikitzen diren ezaugarriak dira, testuinguru sozialarekin lotuta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragile aktibo gisa jarduten dutenengan (irakasleak). Hala ere, talde horren barruan, nortasun indibidual mota desberdinak bereizten dira, (nortasuna, historia, gustuak, etab.) taldean eragina izateaz gain, taldeko eragina ere pairatzen dute, era honetan, berrelikadura konstante batean biziz, eta beraz, irakasle nortasuna bizitakoaren arabera aldatuz (Fingermann, 2018).

“Nire hurrekin errespetuzko eta maitasunezko harremana sortzea, gu izango baikara haien erreferente, gurekin gurasoekin baino ordu gehiago pasako dituztelako batzuk. Aniztasuna bere osotasunean tratatuko dugu, kulturalki, sexualki, linguistikoki... Hurrek guztiz desberdinak diren beste ikaskideekin elkarbizitzen ikasiz. Irakasle moduan ere, kurtsuan zehar bete beharreko helburuak oso presente izan nahi ditut, nire esentzia galdu gabe. Burutzen ditugun proiektu, ekintza zein jardueretan, haurrak murgilduko ditudala ziur nago, eta hori nahi dut gainera, haurrak haien ikaskuntza-prozesuetan bete-betean sartuta egotea. Pentsamendu irekia izango dut, betidanik etxean ikusi dudan pentsamendua, alegia. Irakasleak, gurasoak eta haurrak ezagutzeko denbora hartuko dut, inor epaitu aurretik. Nire lan egiteko modua hobetzearen alde egongo naiz beti, eta ondo esandako iritzi eta aholkuak, esker onez hartuko ditut. Bestalde, gainontzeko irakasle, ikasle zein gurasoek laguntza eskatzen didatenean, nire esku dagoen guztia egingo dut, egoera hoberantz joateko. Azkenean, ikastolako partaide guztiok alde berera arraun egin beharko dugulako beti.”

Bukatzeko esan, lau urte hauek nire irakasle identitatearen sorketan eragin handia izan dutela, oraindik identitate horrek urteen poderioz eta bizipenak bizipen aldaketa ugari jasango dituen arren.

6. ONDORIOAK

Lan honi amaiera emateko, hurrengo lerroetan prozesu osoaren ondorioak aurkeztuko dira. Idatzi honen helburua, practicumeko mintegietan metodologia aktiboen erabilpenak nire konpetentzia emozionaletan, bai eta harremanak sortzeko gaitasunean duen eragina aurkeztea eta aztertzea izanda, jorratutako gai bakoitzetik ateratako ondorio finalak aurkeztuko dira jarraian.

Hasteko, practicumeko irakasgaiak Haur hezkuntzako graduan duen garrantziaz gain, aurretik eta esperientziak irauten duen bitartean unibertsitateak eskaintzen dituen formazioei ere arreta handia eskaini behar zaiela ikusi dut. Azken finean, ikasleentzat esperientzia hauek, lan mundura hurbiltzeko aukera dira, haien etorkizuna definitzeko aukera. Hori dela eta, ikasleak prestatuak egon behar dira, unibertsitatean jasotako teoria praktikara eramaten gai izateko eta batez ere, egoerak eskatzen duen mailan jarduteko, askotan hurrek zein ikastetxeetako irakasleek bigarren irakasle moduan hartzen eta ikusten gaituztelako.

Horren harira, mintegietan metodologia aktiboen erabilpenak ikasle izatetik irakasle izaterako ibilbidean, zenbaterainoko eragina izaten duen lehenengo pertsonan bizitzeko aukera izan dut. Ikaslea abiapuntu izanik, eta irakasleak planteatzen duen egoera batetik, ikaslea izango da bere ikaskuntzaren eraikitzaile aktiboa, hausnarketa, ikerketa... -ren bidez, berak deskubrituko du galdera bakoitzaren erantzuna, irakasleak laguntzaile gisa jarduten

duelarik. Era honetan, errealitateari aurre egiteko tresnak garatzen direla deritzot, bakoitzak dituen baliabideei esker, poliki-poliki bilatzen ditugun erantzunak lortzen direlako. Ondorioz, practicumeko lehenengo egunean edo gure etorkizuneko lanbideko lehenengo egunean, egun horri eta datozei aurre egiteko segurtasun eta baliabide gehiago izango ditugula deritzot, metodologia aktiboen erabilpenak, onura askoren artean, autonomia, segurtasuna eta lan egiteko gogoia pizten dituelako.

Emozioa eta harremana, harremana eta emozioa. Lan honen bidez, bi hitz hauen elkarlana eta lotura ikusteko eta ikasteko aukera izan dut, bai eta barrurarte sartu ere. Haur hezkuntzako etapan garrantzia handia izateaz gain, poliki-poliki edonon ikusteko aukera izan dut ere, mintegietan egindakoak gelan gertatzen zenaren inguruan begiak ireki baitizkit. Lan honen bidez, emozioak irakatsi baino lehen, bakoitzak bereak ezagutu behar dituela konturatu naiz, ezagutzen ez dena ezin delako irakatsi. Horrez gain, Haur hezkuntzan behintzat harremanaren eragina ulertu dut, lotura sortzeko gaitasuna lan egiten dugun pertsona bakoitzarekin agertzen delako, eta lotura horrek, 25 umerengan betirako eragina izango duelako. Emozioa eta harremana bata bestea gabe ezin da ulertu, ez eta eman ere.

Prozesu honetan gai askoren inguruan eta etorkizunari begira, kontzientziarioa piztu zaidala esan daiteke, pasaden urtetik hona, asko izan baitira ulertu eta niretzako eramango ditudanak. Aurretik aipatu bezala, practicumak eta berarekin dakarrenak duen garrantzia ulertu dut, bai eta irakasgai horrek edo esperientzia polit horrek zuzenean ikasle batean duen eragina bizi ere. Haur hezkuntzako eta orokorrean magisteritzako graduan irakasgai beharrezkoena esatera ausartuko nintzateke. Bertan bizitakoa, bigarren irakasle papera betetzea, betirako gurekin eramango ditugun oroipenak eta ikaskuntza ahalbidetzen digu, zalantzarik gabe ahaztu ezin dena.

Horrez gain, irakasleak teoria guztia eman eta ikasleak hori jaso metodotik at, Gral-eko tutoreak pentsatzera ikasten eta nire galderen erantzuna bilatzera bultzatu didan metodo bat ezagutzeko aukera luzatu dit, pertsona moduan garatzen eta ikasgela barruan irakasle moduan harremantzen lagundu didana. Emozioekin ere, gertutik lan egiteko aukera izan dut, tutorearekin egindako mintegietan denbora guztian agerian uztera bideratu baitigu, bakoitzak emozio horiek azalerraten eta ezagutzen zituen bitartean. Ikasgelan, praktikak iraun bitartean, emozioen presentzia nabarmentzearekin batera, lehen esan bezala, mintegi horietan bizitakoaren ostean, ikasgelan zeuden xehetasun txikiak gero eta gehiago azalerratu izan dira, edo horietaz gero eta gehiago jardun izan naiz ni.

Harremanaren presentzia eta emozioekin lan egiten jakitea berebizikoa da eta izango da gure etorkizuneko geletan. Urte honetan, bi horiek oso kontuan eta ondo zaintzen zituen irakasle batekin lan egiteko zortea izan dut, aurretik aipatu bezala, irakasle izateko ibilbide

honetan nigan eragin handia izateaz gain, praktikaldietan zehar haurren emozio eta harremanak zaintzearen garrantzia ikusten erakutsi didana. Hezkuntza munduan mota askotako harremanak daude eta emango dira, pertsona horiek guztiok helburu komuna elkarbanatuko dugularik, haurren heziketa eta prozesu luze horretan zehar, haurren ongizatea eta garapena ematea. Horregatik, eta zailena finkatuta dagoelarik, harremana zaintzea besterik ez dago, harreman hori izango baita hezkuntza posible egingo duen motor nagusietako bat.

7. LANAREN MUGAK ETA HOBEKUNTZAK

Lanaren azkeneko emaitzarekin pozik egon arren, lan guztietan bezala, ikerketa-lan honek mugak eta hobetzeke dauden alderdiak dituela argi dago. Datuak lortzeko unean, urte honetan egindako praktikumeko egunerokoetatik eta mintegiei buruz egindako hausnarketez baliatu naiz, pasaden urteetatik jasotako materiala alde batera utziz.

Egia da, aurtengoa hirugarren praktikuma dela, eta gainontzeko bien inguruan ere, txosten oso bat burutu behar izan dugula. Hala ere, ez dut aproposa ikusi, urte honetakoa izan baita nire gain eragin handiena izan duena, bai praktikuma eta bai mintegietan landutakoa, bata bestea elkarelikatzen joan baita astero.

Hori dela eta, hobekuntza moduan, baliabide gehiago erabiltzea azpimarratuko nuke, azkenean, baliabide guztiei zentzua ateraz eta elkarrekin nahastuz, lan interesgarri bezain polit baten aurrean egongo ginela deritzot.

8. ETORKIZUNERAKO IKERKETA-ILDOAK

Lan honen ostean, eta honen barnean hitz egin diren gaien inguruan gehiago jakin ondoren, hainbat izan dira etorkizunean sakonki aztertu nahi ditudan gaiak, irakasle izateko ibilbide honetan lagungarriak egingo zaizkidalakoan:

- 1) Irakasle izan nahi duten etorkizuneko ikasleak gelara praktikaldietan etortzen zaizkidanean, ahalik eta erraminta gehien luzatuko dizkiet, lehenengo egunetan batez ere, eroso eta aske senti daitezen, ibilbide horretan esperientzia aberasgarria emateko helburuarekin.
- 2) Metodologia aktiboen inguruan gehiago ikertzea eta nire gelan aurrera eramateko baliabideak lortzea, ikaslea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan protagonista izatea, eta bere kabuz galdera guztien erantzuna bilatzea, gu bigarren plano batean gelditzen garelarik. Haurrek pentsatzen ikastea, hausnartzen, gai guztien inguruan, hausnartzeak pertsona moduan hazten laguntzen digulako.

- 3) Emozioen inguruan ere azterketa eta lanketa sakona egitea, nire emozioak kudeatzen ikasi behar dut, ondoren ikasleei emozioetan oinarritutako hezkuntza bat eman nahi badiet.
- 4) Harremanak landu, aztertu eta batez ere, etorkizunean sortuko ditudan harremanen zainketan sakontzea. Lanbide honetan harreman ugari sortu behar ditugu, eta horiek sortzeko gaitasuna izatea berebizikoa dela deritzot, hezkuntza denon artean aurrera atera nahi bada.

9. ERREFERENTZIAK

- Aires, N.B. (2016). El impacto de la educación inicial en el desarrollo infantil.
- Alagarda, Mocholí. A. (2015). LA IMPORTANCIA DE GESTIONAR LAS EMOCIONES EN LA ESCUELA. IMPLICACIONES EN EL PROCESO DE ENSEÑANZA APRENDIZAJE. *Revista Supervisión*, 21(36).
- Aldana, Raquel. (2018ko urtarrilaren 22a). El enfado, una emoción que seduce nuestro monólogo interior. In *La mente es maravillosa*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://lamenteesmaravillosa.com/enfado-una-emocion-seducer-monologo-interior/>
- Aldana, Raquel. (2019ko uztailaren 29a). Un viaje al interior de tus recuerdos. In *La mente es maravillosa*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://lamenteesmaravillosa.com/viaje-al-interior-de-tus-recuerdos/>
- Aragón, Rafa. (2019ko uztailaren 20a). ¿Qué podemos aprender de la incomodidad?. In *La mente es maravillosa*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://lamenteesmaravillosa.com/que-podemos-aprender-de-la-incomodidad/>
- Araque, A. (2017ko Abuztuaren 9a). El docente asombroso. [Bideo-artxiboa] Hemendik eskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=A-nw5eDP3DE>
- Baños, R. V., eta Álvarez, A. A. (2013). Los seminarios de práctica reflexiva en el Prácticum de Pedagogía de la Universidad de Barcelona. *Bordón. Revista de pedagogía*, 65(3), 165-181.
- Barrachina, Lucía. (2018ko azaroaren 12a). La importancia de ser tenido en cuenta y el efecto Hawthorne. In *Lucía Barrachina*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://www.lucibarrachina.com/2018/11/12/importancia-de-ser-tenido-cuenta-efecto-hawthorne-2/>
- Barraza, V. H. (2017). Las competencias emocionales del docente y su desempeño profesional. *Revista Alternativas en Psicología*, 37, 79-92.

- Bernstein-Yamashiro, B., eta Noam, G. G. (Eds.). (2013). *Teacher-Student Relationships: Toward Personalized Education: New Directions for Youth Development, Number 137* (Vol. 125). John Wiley & Sons.
- Blanco, M. (2012). Autoetnografía: una forma narrativa de generación de conocimientos. *Andamios*, 9(19), 49-74.
- Bran Melgaar, Ayleen. (2015eko azaroaren 13a). Importancia de la comunicación en las relaciones interpersonales. In *gestiopolis*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://www.gestiopolis.com/importancia-de-la-comunicacion-en-las-relaciones-interpersonales/>
- Calle Guisado, Cristina. (2017ko azaroaren 18a). Un final es solo otro principio. In *La mente es maravillosa*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://lamenteesmaravillosa.com/un-final-es-solo-otro-principio/>
- Camacaro, P.R. (2006). Instrumentos de recolección de datos. *Calidad de vida en el trabajo en la organización castrense venezolana*. (Doktorego tesia). Zientzia sozialen saila. Simón Rodríguez unibertsitate esperimental nazionala.
- Collazo Expósito, L.M., Geli de Cirauña, A.M. (2017). Avanzar en la educación para la sostenibilidad. Combinación de metodologías para trabajar el pensamiento crítico y autónomo, la reflexión y la capacidad de transformación del sistema. *Revista Iberoamericana de Educación (RIE)*, 73: 131-154.
- Day, C. (2019). *Educadores comprometidos: qué son, qué hacen, por qué lo hacen y lo que verdaderamente importa* (Vol. 152). Narcea Ediciones.
- Delors, J. (1996.): "Los cuatro pilares de la educación" La educación encierra un tesoro-n. Nazioarteko Batzordeak XXI. mendeko hezkuntzari buruz UNESCOri egindako txostena, Madril, Espainia: Santillana/UNESCO. 91-103.orr.
- de Amorós, E. F. (1993). La elección de carrera: una decisión de gran trascendencia. *Educación*, 2(3), 5-13.
- De Moya, M.V. eta Rotondaro, F. (2015). La Educación Infantil que queremos: investigaciones y experiencias. ENSAYOS, *Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 30 (2).
- Denzin, N., eta Lincoln, I. (1994). Ingresando al Campo de la Investigación Cualitativa. Cap. 1.
- Díaz Herrera, C. (2018) Investigación cualitativa y análisis de contenido temático. Orientación intelectual de revista Universum, en *Revista General de Información y Documentación* 28 (1), 119-142.
- Díez, E.J. eta Rodríguez, J.R. (2020). *Educación para el Bien Común. Hacia una práctica crítica, inclusiva y comprometida socialmente*. Barcelona. Colección Universidad. Editorial Octaedro. Hemendik eskuratua: <https://octaedro.com/wp-content/uploads/2020/02/16215-Educacion-para-el-Bien-Comun.pdf>
- Echeverría, R. (2007). *Actos del lenguaje: la escucha*. JCSáez Editor.

- Fernández, J.A., Suárez-Manzano, S., López-Serrano, S., De La Torre-Cruz, M.J., Herencia, A., Hernández, E., Martín, I.M., Ocaña, F.M., Uceda, S., Belinchón, M.R., De Diego, D., Romero-García, C., eta Suárez-Ortega, M. (2018). *Mejorar la educación: prácticas educativas y propuestas metodológicas* [bertsio elektronikoa].
- Fingermann, Hilda. (2018ko azaroaren 1a). La identidad docente. In *La Guía*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://educacion.laguia2000.com/ensenanza/la-identidad-docente>
- Flecha, R. (2004). La Pedagogía de la Autonomía de Freire y la Educación Democrática de personas adultas. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 18(2),27-43.[fecha de Consulta 13 de Junio de 2020]. ISSN: 0213-8646. Hemendik eskuratua: <https://www.redalyc.org/pdf/274/27418203.pdf>
- Gallardo Jaque, A. (2018). Las competencias emocionales en el currículum de las carreras de Pedagogía de la Universidad de Playa Ancha.
- Garduño, Kevin. (2015eko Urriaren 12a). Utopía de la educación: la educación ideal. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://cienciatecnoeducativa.wordpress.com/2015/10/12/utopia-de-la-educacion-la-educacion-ideal/>
- Gil Álvarez, J. L., León González, J. L., & Morales Cruz, M. (2017). Los paradigmas de investigación educativa, desde una perspectiva crítica. *Revista Conrado* , 13(58), 72-74. Hemendik eskuratua: <http://conrado.ucf.edu.cu/index.php/conrado>
- González, C. A. G. (2012). Emociones y Sentimientos en el Primer Día de Práctica: Mi Primer Contacto Práctico con La Educación Física. *Revista Motricidad y Persona*, (11), 39-48.
- González-Garzon, M^a L. eta Laorden, C. (2012). El Prácticum en la formación inicial de los Maestros en las nuevas titulaciones de Educación Infantil y Primaria. El punto de vista de profesores y estudiantes. *Pulso 2012*, 35. 131-154. Escuela Universitaria Cardenal Cisneros (UAH). Hemendik eskuratua: <https://core.ac.uk/download/pdf/58909544.pdf>
- Gordillo, M. G., Fernández, M. I. R., Herrera, S. S., & Almodóvar, Z. C. (2016). Clima afectivo en el aula: vínculo emocional maestro-alumno. *Revista INFAD de Psicología. International Journal of Developmental and Educational Psychology.*, 1(1), 195-202.
- Granados Romero, J. F., Vargas Pérez, C. V., & Vargas Pérez, R. A. (2020). La formación de profesionales competentes e innovadores mediante el uso de metodologías activas. *Revista Universidad y Sociedad*, 12(1), 343-349.
- Grau, S., Gómez, C. eta Perandones, T. M^a. (2009). 1. LA FORMACIÓN DEL PROFESORADO COMO FACTOR DECISIVO DE LA EXCELENCIA EDUCATIVA. *Propuestas* Cap 1, 7-26. Hemendik eskuratua: <https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/13199/1/PROPUESTAS%20CAP.%201.pdf>

- Gruber, M. (2015eko Azaroaren 20a). This is Your Brain on Curiosity. [Bideo-artxiboa] Hemendik eskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=SmaTPPB-T_s
- Hermida, A.L. eta Rodríguez, R. (2020). La Mente Absorbente y los Periodos Sensitivos. In *SEMINARIO INTRODUCTORIO A LA EDUCACIÓN MONTESSORI 3-6 (1-3.or.)*. Barcelona: International Montessori Institute.
- Hernández, S. F., & Rivera, Z. (2009). El paradigma cualitativo y su presencia en las investigaciones de la Bibliotecología y la Ciencia de la Información. *Revista Cubana de Información en Ciencias de la Salud (ACIMED)*, 20(3), 6-30.
- Hernández-Hernández, F., eta Benavente, B. R. (2019). La perspectiva post-cualitativa en la investigación educativa: genealogía, movimientos, posibilidades y tensiones. *Educatio Siglo XXI*, 37(2 Jul-Oct), 21-48.
- Jiménez, Sandra. (2015eko urtarrilaren 11a). Saber estar bien en la incomodidad. In *Amalurzen*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <http://www.amalur-zen.com/blog/zen-saber-estar-bien-en-la-incomodidad/>
- Jiménez Hernández, D., González Ortiz, J.J. eta Tornel Abellán, M. (2020). Metodologías activas en la universidad y su relación con los enfoques de enseñanza. Profesorado. *Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 24(1), 76-94. DOI: 10.30827/profesorado.v24i1.8173
- Korthagen, F. A. (2004). In search of the essence of a good teacher: Towards a more holistic approach in teacher education. *Teaching and teacher education*, 20(1), 77-97.
- Kouamé, Habib. (2019ko irailaren 12a). El desarrollo de la primera infancia, la base de una sociedad duradera y próspera. In *Humanium*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://www.humanium.org/es/el-desarrollo-de-la-primera-infancia-la-base-de-una-sociedad-duradera-y-prospera/>
- López, H. C., eta Córdoba, J. O. (2017). Diversidad funcional y actitudes del profesorado. Una mirada presente y futura. *Revista de estudios e investigación en psicología y educación*, (6), 16-19.
- Martín-Alonso, D., Blanco, N., eta Sierra, J. E. (2019). Comprensión pedagógica y construcción de la relación educativa. Una indagación narrativa. *Teoría de la Educación. Revista Interuniversitaria*, 31(1 (en-jun)), 103-122.
- Martínez Lirola, M., Llorens Simón, E. M. (2014). Metodologías activas, aprendizaje cooperativo y competencias emocionales como claves para la enseñanza de lenguas y humanidades en el ámbito universitario: nuevos roles asumidos por el profesorado. Hemendik eskuratua: <https://web.ua.es/va/ice/jornadas-redes-2014/documentos/comunicaciones-posters/tema-3/388719.pdf>
- Martínez, P. M., González, M. B. A., & Pérez, R. A. R. (Eds.). (2014). *Investigación e innovación en Educación Infantil*. Ediciones de la Universidad de Murcia (Editum).

- Mena, J., Gómez, R. y García, M. L. (2019). La construcción de conocimiento pedagógico de los profesores en formación durante el prácticum. *Revista Electrónica de Investigación Educativa*, 21, e27, 1-13.
- Muñoz, Encarni. (2018ko azaroaren 14a). ¿Cómo puedo superar el miedo a lo que piensen los demás de mí?. In *MundoPsicologos*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://www.mundopsicologos.com/articulos/como-puedo-superar-el-miedo-a-lo-que-piensen-los-demas-de-mi>
- Muñoz, J. G. (2014). El valor de la auto-etnografía como fuente para la investigación social: del método a la narrativa. *Azarbe, revista internacional de trabajo social y bienestar*, (3).
- Nocetti de la Barra, A., eta Medina-Moya, J. L. (2019). Significados de reflexión sobre la acción docente en el estudiantado y sus formadores en una universidad chilena. *Revista Educación*, 43(1), 152-170.
- Outrebon, Mathilde. (2017ko urtarrilaren 31a). Cuestionar para progresar. In *Inusual*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://inusual.com/es/blog/cuestionar-para-progresar>
- Porlán Ariza, R. (2008). El diario de clase y el análisis de la práctica. *Averroes. Red Telemática Educativa de Andalucía*, 8 p.
- Practicum III Gida, (2020). *EHUren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko Esparru Hitzarmena*. Bilbo.
- Rodríguez, Eva María. (2019ko maiatzaren 6a). Teoría sociocultural del desarrollo cognitivo de Vygotsky. In *La mente es maravillosa*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://lamenteesmaravillosa.com/teoria-sociocultural-del-desarrollo-cognitivo-de-vygotsky/>
- Rodríguez Ruiz, Celia. (2019ko apirilaren 2a) (a). El Miedo a ser juzgado ¿Por qué nos preocupa lo que piensen los demás? In *Educa y aprende*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://educayaprende.com/el-miedo-a-ser-juzgado/>
- Rodríguez Ruiz, Celia. (2019ko apirilaren 12a) (b). ¿Cómo influyen nuestras emociones en las relaciones familiares?. In *Educa y aprende*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://educayaprende.com/como-influyen-nuestras-emociones-en-las-relaciones-familiares/>
- Romero-Cerezo, C., Zurita-Ortega, F., eta Zurita-Molina, F. (2010). Autonomía y orientación en el Espacio Europeo de Educación Superior mediante el portafolio y la tutoría.
- RTVE. (2020). CORONAVIRUS. In *RTVE noticias*. Hemendik eskuratua: <https://www.rtve.es/noticias/20200611/se-sabe-del-nuevo-coronavirus-china/1996067.shtml>

- Sánchez, Diana. (2016ko urtarrilaren 25a). La teoría del vínculo y su importancia en el desarrollo infantil. In *en brazos*. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <https://enbrazos.com/2016/01/25/la-teoria-del-vinculo-importancia-desarrollo-infantil/>
- Sancho, J. M., eta Correa, J. M. (2013). Aprender a ser maestra: perplejidades y paradojas. Cuadernos de pedagogía, (436), 18-21.
- Sofía, F. D. G., Carmen, G. G., Laura, Q. C., Raquel, R. F., Pilar, R. D. L. eta Encarnación, S. S. (2015). *Fundamentos de investigación en psicología*. Editorial UNED.
- The Agile Way. (2020). La experiencia es algo maravilloso [Argazki-artxiboa]. Hemendik eskuratua: <https://frases-para-fotos.com/cita/3643/>
- Velasco, M. (2019). Cómo enseñar a los alumnos a manejar sus emociones en el aula. Educación. *Unir revista*. Hemendik eskuratua: <https://www.unir.net/educacion/revista/noticias/como-ensenar-a-los-ninos-a-manejar-sus-emociones/549203779062/>

10. ERANSKINAK

EGUNEROKOA

LEHENENGO EGUNA: Azaroaren 4a

Ikastolara heldu eta koordinatzailearekin bildu ginen. Koordinatzailea ezaguna nuenez, oso harrera beroa eman zidan, eta berehala gure geletara eraman gintuen. Hasieran urduri nengoela aitortu behar dut, tutorearekin harremanak beti kezkatzen nauelako gehien. Zer pentsatuko zuen nitaz? Nola hartuko ninduen? Kasurik egingo ahal zidan? Galdera horiek guztiak nire burutik zeuden bitartean, tutorea ezagutu nuen. Hasieratik oso hurbila eta jatorra izan zen nirekin eta haurrak etorri baino lehen gela erakutsi zidan gainera, funtzionamendua ere gainera azaltzearekin batera. Ordua heldutakoan, harrera egin genien umeei eta autobusekoak, zaintzakoak eta gurasoekin zetozenak sartzen joan ziren poliki-poliki. 3 urteko gelan nago eta Olabiden 4 lerro daude, bi gela elkarrekin eta beste biak parean daudelarik. Bi gela horiek, irekita daude, hau da, gela bat balitz bezala erabiltzen dute eta sartu bezain pronto zirkulazio librea egiten dute bi gela horietatik zehar. Txoko desberdinak aurki ditzakegu, eraikuntza txokoa, liburutegia, puzzle txokoa, marrazketa, sinbolikoa, esperimentazio-txokoa...eta bertan erabiltzen diren materialak astero aldatzen dira gela batetik bestera, haurrek material ezberdinak landu ditzaten. Zirkulazio librean aritu ziren hamaiketako ordurarte.

Haurrei dagokienez, batzuk azkar hurbildu ziren niregana (batzuk ezagunak nituen) eta beste batzuk aldiz, gelan ez banengo bezala egin zuten. Haur horiek ezagutzeak, nolabaiteko segurtasuna eman zidala aitortu behar dut, haiekin igaro nituen niretzat praktikaldi osoan zehar dauden ordu zailenak. Haiekin jolasten, barre egiten eta dibertitzen egon nintzen beste asko hurbiltzen zitzaizkidan bitartean. Tutoreak informazio orokorra luzatu zidan, txokoen ingurukoa, funtzionamendua, egunerokotasuna...eta hamaiketako ordua heldu zen. Hamaiketakorako haur bakoitza bere txokora (alfonbrara) joan zen tutorearekin, eta hamaiketakorako banana eta sagarra banatu genituen. Ondoren, eta hurrengo egunean egingo genuen ekintza bereziarekin zerikusia izango zuena, kanpora atera ginen hostoak jaso eta haiekin jolastera. Gelako neska bat, nire ondoan egon zen goizean atetik sartu bezain pronto, ni ezagutu gabe baina ez zen nire ondotik mugitu goiz osoan. Eskutik helduta joan ginen kanpora, oso neska beldurtia da eta nik segurtasuna ematen niola ematen zuen, gelako beste neska batetik ihes egiteko asmotan nire atzean izkutatu baitzen hainbat aldiz. Eurria zela eta, denbora gutxi egon ginen kanpoan, hala ere, hostoak jasotzeko denbora eman zigun eta hostokien gelara bueltatu ginen. Bazkalordua

heldu zen eta jantokikoei amantalak jantzi eta arduradunek bazkaltzera eraman ondoren, autobusez zihoazenak prestatzen hasi ginen, eta autobusetara eraman ondoren, gurasoek bila zetozenei prestatu genien.

Arratsaldean, jantokian gelditzen direnak siesta egiten dute eta tutoreak arratsaldean datozenekin eta siestatik esnatzen direnekin gelditzeko esan zidan. Horrela, adin-tarte horretako 3 irakaslekin egon nintzen, eta oso elkarrizketa interesgarri bat izan genuen. Irakasle batek nire aurreko praktiken inguruan galdetu zidan, eta ondoren, irakasle moduan bere ikuspuntua eman zigun, hitz horiek entzutean nire barnean hausnarketa sakon bat hastearekin batera. Bere ustez, haur hezkuntzan landu beharko genukeen edukia baino, emozioak izan beharko lirake, askotan helduek ere haien emozioak kudeatzen ez dakitelako. Haurrari zerbait egiten uzten ez diogunean, beste aukera bat eman beharko geniokeela esaten zuen. Haurra maitatua sentitu behar zela goraiatu zuen denbora osoan, eta liskar baten aurrean “erasotzailearekin” soilik hitz egin baino “erasotuarekin” ere hitz egitea, bai eta bigarrenari defendatzeko erramintak luzatzea. Haurren autonomiaren inguruan ere hitz egin genuen eta honen inguruan, irakasleok haurrei ematen dizkiegun aukeren artean erabakitze garrantzia azpimarratu zuen, haurrek erabakitzen ikasi behar dutelako. Arratsaldea elkarrizketa honekin bukatu genuen, haur bakoitza bere gelara itzuli eta etxera joan ziren (gurasoekin edo autobusez). Elkarrizketa horren ostean, hitz egindakoaren inguruan pentsatzen eman nuen arratsalde osoa, elkarrizketa horrek zerbait sortu zuen nigan, eta egun horretatik gatazka baten aurrean nire jokaera desberdina izango zela erabaki nuen, irakasle horren ikuspuntua asko gustatu baitzizaidan.

Eguneko hausnarketa egin behar badut, haur askok kasurik egiten ez zidatelaren sententziarekin gelditu nintzen. Egia da, lehenengo eguna zela, eta haur askok esaten nienari jaramon egiteaz gain nirekin denbora luzez egon zirela, baina beste asko nigatik paso egiten zutela iruditu zitzaidan, eta horrek, gaizki sentiaraztea egin ninduen. Suposatzen dut txarrean jarri nintzela, eta bi hilabetetan dena horrela izango zenaren ustea izan nuela, baina aurreko praktikaldietako etapa bukaera nuen gogoan, eta bukaeran haur guztiek nirekin egon nahi zuten edo behintzat guztiek egiten zidaten kasu. Hala ere, bukaera zen, hasieraz ez naiz ondo oroitzen, baina olabiden izan zenaren berdina edo antzerakoa izango zela suposatzen dut.

HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA, EMOZIOAK

BIGARREN EGUNA: Azaroaren 5a

Zirkulazio librea iritsi bezain pronto gela osotik zehar. Logopeda lehenengo aldiz ikusi nuen ,gelan haur gor bat daukagulako eta astean hiru-lau alditan gelan sartzen dela azaldu zidan tutoreak. Hala ere, ez zen bakarrik haurrarekin egoten, ipuinak berari eta nahi zutenei kontatzen zizkion, haurrarekin zeinu-hizkuntza lantzen zuen bitartean. Ondoren, hamaiketako orduan ondoko gelakoak psiko gelara joan ziren, eta ordu horretan, tailer berezia egitea aprobetxatu genuen. Tutoreak tailerrera ondoko gela prestatzen zuen bitartean, niri hamaiketakoa banatzeko eskatu dit eta horrek poztu egin nau (tutore honek hiru urtetatik presenteen eduki nauena izan da), bitartean berak gelako espazio jakin batzuk prestatu zituen hostoen tailerra burutzeko. Ondo sentitu naiz, momentu batean eta ondoko gelan bazegoen ere, haurrak nire “ardurapean” utzi dituelako, nigan konfiantza hori izan duelako. Hamaiketakoarekin bukatu genuenean, tailerrarekin hasi ginen. Lehendabizi, hosto guztiak manta gainean jarrita zeudela, hostoak gora eta behera mugitzen hasi genituen lehenengo kontaktu gisa (guztiok batera) haurrek ederki pasa zuten ekintza honetan, eta orokorrean tutoreak eta biok ere, haurren barre-algarak guri ere kutsatu zizkigutelako, manta eta hostoekin jolastu eta gero, mahai bakoitzean kola barra sorta eta pegatina batzuk utzi genituen eta haur bakoitzari libreki material horrekin nahi zutena egitea utzi genien. Hostoak paperetara itsatsi, hostoetan pegatinak jarri...idea ezberdinak bururatu zitzaizkien haurrei guk behatzaile (batzuetan laguntzaile) gisa jardun genuela eta haurrek haien lanak denbora guztian erakusten zizkigutela (oniritzia bilatzeko asmoz) Momentu horretan ohartu nintzen zein garrantzitsua den haien zentzua gure iritzia, eta momentu horretan ere ni garrantzitsu sentitu nintzen. Ekintza berezi hau egin ondoren, jantokikoak prestatu genituen, ondoren autobusekoak eta azkenik, gurasoak bila zetozenak.

Arratsaldean, astelehenean egin genuenaren antzekoa, arratsaldetan zetozeekin egon eta siestatik jaikitzen zirenekin. Arratsaldearen erdialdean, pelikula bat jarri genien nahi zutenei gainontzekoek jolasten zuten bitartean (ile-apaindegia). Dena jaso ondoren, bakoitza bere gelara bueltatu, berokia jantzi eta etxera joan ginen.

Arratsaldetan egia esan, pixkat deserosoago sentitzen naiz. Nire tutorea siesta gelan gelditzen da umeak esnatzen direnean komunera laguntzeko eta ondoren gure gelara eramateko, eta beraz, ez ditut orduak berarekin igarotzen. Beste bi andereñoekin ematen ditut orduak, eta haiekin ondo egon arren, ez dut hainbeste elkarrizketarik. Beste praktikako bat ere dago, ni baino denbora gehiago daramana bertan, eta berak nagusitasunarekin begiratzen didala sentitzen dut askotan, eta horrek, lehenengo eta bigarren egunean

deseroso sentiarazi nau. Hala ere, ume asko eta asko niregana hurbiltzen dira, ipuinak kontatzeko, orrazteko, trentzak egiteko...eta oso momentu onak igarotzen ditugu elkarrekin.

SENTSAZIOAK, EMOZIOAK, HARREMANAREN GARRANTZIA

HIRUGARREN EGUNA: Azaroaren 6a

Gaurko eguna desberdina izan dela esan daiteke, izan ere, lehenengo orduan, dramatizazio gelara joan gara dramatizazioko irakaslearekin. Tutoreak atzo komentatu zidanez, hilean behin dramatizazio gelara (tatami) joaten dira eta bertan irakasle batekin eta tutorearekin egoten dira dramatizazioa lantzen. Gaurkoan, zapatilak gelatik kanpo kendu eta jolas moduko bat egin dugu (animaliak bagina bezala). Ondoren, gelara sartu gara eta gela osotik zehar, kutxak, zapiak, tutuak... sakabanatuta zeuden. Irakasleak erraminta desberdin horiek erabili ditu egoera piloak simulatzeko, autobusa, ohea, ospitala, piszina... nahi zuten hurrek berdina egin zezaten. Hiru egun hauetan, haurren erritmoak asko errespetatzen dituztela ikusi dut, bai eta hurrei ezer egitera behartu ere (haur bat ordu osoan egon da bankuan eserita), bakoitzak nahi zuena egiten zuela momentu guztian (jolas sinbolikoa askok oso garatuta). Oso ondo sentitu naiz dramatizazio gelan, lotsa alde batera utzita jokatu dudalako eta haur eta irakasleekin ordu oso ona igaro dudalako. Ez naiz batere epaitua sentitu, eta horrek lehenengo egunetako lotsa alde batera uztea eragin du, hurrekin batera elkarlanean aritzearekin batera. Hamaiketako ordua heldu denean, gelara bueltatu gara eta hamaiketakoak jan dugu. Ondoren, gela osoa berriro erabiltzeko aukera izan dugu (beste gelakoak dramatizazioa zutelako) eta ordu horretan, esperientziak kutxek izan dute arrakasta gehien pasaden astean hare sinbiotikoa zutelako eta aste honetan aldiz arrosa zegoelako kutxa horien barnean. Txoko sinbolikoan ospitale bat zegoen eta horrekin ere jolasten egon gara. Sendagileak eta gaixoak ginelarik egon gara haur bakoitzaren irudimena ikusteko aukera edukitzeaz batera. Bukatzerakoan, jantokikoak, autobusekoak eta gainontzekoak prestatu ditugu bazkaltzera joateko. (Haurrak ama, aita, aitona, amona eta negar hitzak erakutsi dizkigu zeinu-hizkuntzan) *logopedak gelatik kanpo eraman zuen haurra eta ondoren dramatizazio gelara ekarri zuen, oso momentu polita bizitzeko aukera izan nuen, neskak hitz horiek beste hizkuntza batean erakutsi baitzizkigun.

Arratsaldean, aurreko bi egunetan egin genuenaren antzekoa, gelan egon, hurrekin jolastu, aurpegiak margotu, plastilinarekin egon...ondoren dena jaso bakoitza bere gelara, berokiak jantzi eta etxera. Gaurkoan erosoago sentitu naiz, irakasleekin hurbiltzen hasia naiz jada eta

elkarrizketa gehiago ditugula esan daiteke, hala ere, irakasle bakoitza berera doa eta hurrekin egoten gara gehienbat, askotan gure laguntza eskatzen dutelako.

EMOZIOAK, SENTSAZIOAK, METODOLOGIA

LAUGARREN EGUNA: Azaroaren 7a

Goizero bezala, ikastolara iritsi bezain pronto hurrek zirkulazio librea izan dute. Berriz ere, logopeda gure gelan sartu da eta haurraren eta beste batzuekin margotzen egon da, hizkuntza lantzearekin batera. Haurren jokaerak berarekiko aztertzen egon naiz, bai eta logopeda berarena ere, eta hurrek oso normalizatua dute emakume horren presentzia gelan, haien ikaskidea gelan guztiz integratua dagoela ikustearekin batera. Polita da eta oso ondo dago hurrek aniztasun funtzionala gertutik ikustea eta harekin bizitzea, gelan dagoen aniztasunarekin bizitzeaz gain. Niretzat ere esperientzia berria eta polita izango dela uste dut, egoera guztietatik ikasteaz gain, egoera berri honetaz ere asko ikasiko dudaren ustea baitut. Horren ostean, hamaiketakoa hartu eta psiko gelara abiatu gara lehenengo aldiz. Hurrei ikaragarri gustatzen zaiela ikusi dut, eta bakoitza bere modura bada ere, oso ondo jolasten dute bertan. Koltxoneten zirkuitu bat, eskailerak igo eta bertatik salto egiteko koltxoneta erraldoia, jolas sinbolikoan aritzeko materiala..bezalakoak aurkitu ditut bertan, eta goiza bukatzeko gelditzen zen denbora bertan eman dugu, hurrekin jolasten. Harrigarria da nola gelako haur batzuk edozer egiteko gure oniritzia eskatzen duten bai eta gurekin jolastea nahi duten denbora guztian. Ondoren, eta jasotzeko ordua heldu denean, tutoreak ipuin bat irakurri die hurrei laguntzaileak eta nik berriro dorrea sortzen genuen bitartean. Ipuina bukatutakoan, zapatilak jantzi eta gelara bueltatu gara, jantokikoak, autobusez doazenak eta gurasoak bila datozenak prestatzen.

Arratsaldean, betiko moduan, pareko gelan egon gara hurrekin, ipuinak kontatzen eta haiekin jolasten. Ondoren, telebista jarri diete eta nahi zutenak telebistaren parean jarri dira beste batzuek telebistari kasurik ez eta ipuinak entzuten eta haiek kontatzen zituzten bitartean. Ipuinak kontatzeko eskatu didate haur batzuk eta horretan egon gara, hala ere, haiek niri kontatzen bukatu dugu arratsaldea, gelan badaudelako oso helduak diren haur batzuk. Ipuin txokoan egon gara lasai-lasai, ipuinak kontatzen, oso momentu polita izan da, haur batzuk bere izaeraren beste aurpegi bat erakutsi didatelako. Ordua heldu denean, dena jaso dugu eta bakoitza bere gelara joan da, berokia eta dena jantzi eta autobusekoak atera eta gero, gurasoen zain egon gara. Gurasoek lau egunetan berdina egin dutela esan

daiteke, gelan sartu haurra agurtu eta tutorearekin batez ere hitz egin dute, gehienek haien haurra zer moduz egon den galdetuz.

ANIZTASUNA, INTEGRAZIOA, ONIRITZIA

BOSGARREN EGUNA: Azaroaren 8a

Goizean zirkulazio librea egin dugu berriro. Marrazkiak arbelean, eraikuntza txokoa, liburuak, jolas sinbolikoa...bezalakoetan aritu gara, eta ordu bat horretan egon eta gero jasotzen hasi gara, hamaiketakoa hartzeko. Platanoa eta gailetak banatu eta gero, eta eguraldi txarra zela eta, goiko aretora joan gara jolastera (HHko nagusien patioa da euria egiten duenean). Bertan, nagusiak zeuden eta beraiekin jolasten egon dira denbora batez, uztailekin, pilotekin...baina iritsi da momentu bat non haur gehienak agobiatu eta niregana etorri diren gurasoen inguruan galdetuz. Haien ezinegona lasaitzen saiatu naiz, baina oso zaila egin zait batzuekin, ezinegona lasaitu ezinik negarrez jarraitu dutelako. Askotan egoera horien aurrean nagoenean, galduta sentitzen naiz, ez dakidalako ondo zer egin behar dudan, zer da egokiena kasu horietan, irakasle baten begiradapean nago momentu guztian, eta ez dakit nik egindakoa ondo irudituko zaion. Hala ere, nire erara egiten dut beti, haurrak dibertitzen saiatzen naiz, gurasoetaz momentu horretan ahazteko (bat hasten denean gainontzekoek berdina egiten dute). Aretotik paseotxoak ematen egon eta gero, joateko ordua heldua da. Haur guztiak jaso eta gelara itzuli gara, txamarrak eta amantalak janztearekin batera. Ondoren, jantokiko haurrak begiralearekin eta autobuseko haurrak autobusetara eramane eta gurasoen zain gelditu gara. Gurasoak etorri direnean eta haiekin hitz egiten egon eta gero (batzuekin besteekin baino gehiago) etxera joan gara.

EMOZIOAK

BIGARREN ASTEA

LEHENENGO EGUNA: Azaroaren 11a

Zirkulazio librea: ipuinak kontatu, eraikuntzak, puzzleak egin...puzzleetan hurrek nire laguntza bilatzen dute denbora osoan, batzuk frustatu egiten dira askotan piezak ez doazelako haiek uste duten lekuan, eta niri eskatzen didate laguntza frustazio horri amaiera emateko, harrigarria da nola haien arazoan erantzuna gudan bilatzen duten, oso paper garrantzitsua betetzen dugu haien bizitzatan, horretaz konturatu naiz bi aste hauetan zehar,

guganako duten dependentzia batzuk (ia guztiak zerbaitetarako guregana hurbiltzen baitira). Pintzelekin margotu, aurretik horretaz hitz egin haurren interesa pizteko (ondoko gelakoak psiko gelan). Parte-hartzea hautazkoa da, gehienek parte-hartzen duten arren, ariketa honetan neska batek ez zuenez nahi, ondoan gelditu zen begira, margotu gabe. Azpimarratzekoa da, gelan dagoen neska bat ariketa honetan lehenengo aldiz parte-hartu zuela astero egiten dituzten ariketa berezien artean (tutoreak komentatu zidan lehenengo aldia zela), beraz gutxinaka-gutxinaka badoa klaseko dinamiketara animatzen eta horietan parte-hartzen.

BIGARREN EGUNA: Azaroaren 12a

Jolastokira atera gara lehenengo aldiz. Haur hezkuntzako jolastokia oso handia eta anitza da. Denetarik du, kolunpioak, gaztelu erraldoia txirrista askorekin, esperimintatzeko hare piszina eta harearekin jolasteko mila katilu, porteriak, kolunpio gehiago... Jolasteko mila aukera eta mila modutara dituzte haurrek, eta horregatik disfrutatzen dute hainbeste. Ez dira askotan ateratzen, ez behintzat neguan eta gutxiago euria egiten duenean, baina ateratzen direnean guztiz disfrutatzen dutela ikusten zaie, eta guri disfrutatzea eragiten digute. Harremantzeko beste gune bat da, handiagoak direnekin zein txikiagoak direnekin, eta horrek ere ikaskuntza bat ekartzen du.

SENTSAZIOAK, EMOZIOAK, HARREMANAK

HIRUGARREN EGUNA: Azaroaren 13a

E eta D oso lagunak dira, beti daude elkarrekin, egia da gela honetan lagun taldeak oso finkatuta daudela, nahiko berdintsuak dira beti, egunero berdinekin harremantzeko joera dute. Gelan badaude bi nahiko bihurriak direnak, oso mugituak, nahiko desafianteak dira. Ikastolatik paseotxoak ematen ditugunean beti joaten dira toki desberdinetatik, ihesi egiten dute, Ek askotan D ihes egitera animatzen du, Dk batzuetan ezetz esaten dion arren. E izaera oso fuerteko neska da eta beste haur batzuekin desatsegina suertatu daiteke batzuetan (nirekin beti oso ondo ibiltzen da, kasua gutxitan egiten didan arren). Hala ere, D beti tratatzen du ondo, denen aurrean defendatzen du eta berarekin hitz goxoak baino ez zaizkio ateratzen. Besteekin eztabaidak izaten ditu jostailu bat nahi eta beste batek duelako edo alderantziz, baina D rekin ez ditu eztabaidak izaten eta dena uzten dio. Asko zaintzen du, eta beti dago bera laguntzeko prest.

Jolastoki orduan ikastola osotik paseotxo bat ematera joan gara, normalean eraikuntzatik bakarrik ematen dugu paseoa eta aretoan bukatzen dugu, baina gaur, ikastola osotik eman dugu, nagusien patioa, piszinara, irakasleen aparkalekura... haurrek behar dute paseotxo horiek ematea, askotan kalera irtetea beharrezkoa egiten zaie, korrika egiteko edo soilik aire freskoa hartzeko. Gelan egonda agobiatuta egoten dira, barruan egonda, eta hotza egiten duen arren, txamarra jantzi eta kalera irteteak freskotasuna ematen die. Ibilbide osoan zehar M nire eskutik ibili da, gelatik ateratzen garen bakoitzean bezala, segurtasuna ematen diodala ematen du, gelara heldu, aitari agur esan eta niregana etortzen baita beti, ixiltasunean bada ere, beti dago nire ondoan. Nirekin babeska duela ematen du, eta hori niri ondo sentiarazten dit, haur horrengan zerbait sortarazten dudalako. Oso beldurtia dela ikusten da, lehenengo momentutik ikusi nuen, baina beldurrak poliki-poliki joaten ari zaizkiola ikusten ari naiz ere, gutxinaka-gutxinaka beste hurrekin erlazionatzeko kapaza baita.

HAURREN ARTEKO HARREMANAK, BABESKA, SEGURTASUNA

LAUGARREN EGUNA:Azaroaren 14a

Psiko gelara joan ginen, psiko gelan haurrek oso ondo pasa eta nirekin harremanetan ia denbora osoan, haiek zer egiten zuten ikusteko eskatzen zidaten denbora guztian, nire atentzioa haiengan jartzeko eta horrek azkenean ondo sentiarazten nau, haientzako garrantzitsua naizela sentitzen dudalako. Hala ere, momentu gutxitan izan bazen ere, bakarrik eta pixkat aspertuta sentitu nintzen, haurrak bere airera jolasten zutenean (oso momentu gutxitan, izan ere, batek txiribueltak nola egiten zituen begiratzeko eskatzen zidanean gainontzekoek ere berdina egiten zuten eta entretenitua mantendu ninduten denbora ia guztian).

Arratsaldean pelikula bat ikusten egon ziren, baina klaseko haur batzuk ez dute hori aguantatzen eta beste gauza batzuk egitea behar dute. Siestatik altxatzean D (gurasoek siesta ez egitea eskatu digute, baina jantokian gelditzen diren guztiek siesta egiten dutenez berak ere egiten du 15:00etararte) niregana etortzen da eta nire hanketan etzaten da nik bizkarrean masaje bat egiteko, oso momentu samurra eta goxoa da niretzat, behin baino gehiagotan egin duelako eta nire hankartearen lasai dagoela ikusten zaiolako, niri ere lasai sentiaraziz. Oso erlaxatua sentitzen da nirekin eta horrela ikusarazten dit, aste osoan zehar berdina egin duelako. Bera eta beste hiruk ezin dute telebista 5 minutu baino gehiagoz ikusi eta niregana etortzen dira ipuin bat edo zeozer gehiago egiteko. Ileapaindegian aritzea ere

gustatzen zaie eta horrela ematen ditugu arratsaldeak, entretenituak ni pozaren pozez haietaz eta haien nitaz disfrutatzen dugulako.

ONIRITZIA, HAUR ETA NIRE ARTEKO HARREMANA, GOXOTASUNA, LASAITASUNA

BOSGARREN EGUNA: Azaroaren 15a

Gelatinekin esperimendazioa. Sorpresa faktorea mantendu haurren interesa izateko. Materiala alde batetik bestera eramaten genuen bitartean, hurrekin ondoko klasean zer prestatzen ari ginenaren inguruan hitz egin, eta haien pozez beterik, urduri, zer egongo ote zenaren zain hitz egiten zuten. Amantalak jantzita, tresna ezberdinekin gelatinarekin esperimendatu, batzuk jan, beste batzuk ahal bezainbeste haien poteetan sartu, guztiek parte hartu nahi izan zuten, bat izan ezik. Amantala janzterakoan ezetz esan zuen, aurrekoan ere ezetza jaso genuen eta ekintza berezia egin gabe gelditu zen, guztia ondotik ikusten gelditu zela. Oraingoan, nire eskutik egon zen denbora guztian, gelatinari beldurra ematen ziola ematen zuen. Hala ere, beste irakasle eta bion laguntzaz (esperimendatzeko gogo handia zuela ikusi baikenuen) berarekin esperimendatzen hasi ginen, eta ikaragarri gustatu zitzaion. Orduan, amantala ekarriko niola esan nion baina berak ezetz esan zidan. Irakaslearekin komentatu nuenean, berak esan zidan behin baino gehiagotan gertatu zaion egoera izan dela, amantalararekin esperientzia txarren bat izango zuelako beharbada (haurreskolan komentatu zidan, eta haurreskolen inguruan hitz egiten egon ginen, batzuetan bertan dagoen joera hurrei esperientzia txarrak izatea ekartzen dizkietelako). Asko gustatzen zait irakasleekin ulertzen ez ditudan gai hauez hitz egitea, haien esperientziatik abiatuz haien azalpena ematen didatelako, eta egunerokotasunean gertatzen diren gauzetaz hitz egiteak eta horien inguruan hausnartzeak, zerbait gehiago irakasten didalako beti.

INTERESA PIZTU MODU DESBERDINEN BIDEZ, GALDERAK, JAKITEKO GRINA, HAURREN BARRUKO MUNDUA

HIRUGARREN ASTEA

LEHENENGO EGUNA: Azaroaren 18a

Goiza betiko moduan joan da, ez da ezer berezik edo nire atentzioa deitu duen ezer gertatu. Gelako haur asko 8 konkretuki falta dira gaixorik daudelako.

Arratsaldean tutorea D.esnatzera joan da, azkenaldian bezala, gurasoek siesta ez egitea eskatu zioten tutoreari, neba jaio-berri bat dauka eta gauetan ikaragarri kostatzen zaio lo egitea. Beraz, 15etan esnatzen du eta beste gelara sartzen den momentutik nire begirada bilatzen du, niregana etorri, nire gainean igo eta nire hanketan etzateko. Horrela egoten da denbora luzez, norbait berarekin jolastera etortzen den arte, hala ere, horrela oso erlajatuta egoten da (normalean oso mugitua den umea da) eta arratsalde asko igarotzen ditu nire ondoan, ipuinekin, puzzleekin...edozein ekintza egiten dugula ere.

BIGARREN EGUNA: Azaroaren 19a

Mk beste Mn aurkitu du lagun bat, eta bere izateko era guztiz aldatu da. Gelara sartu eta berdin jarraitzen du, aitari agur esan eta tutorearen eskutik helduta niregana etortzen da eta nire ondoan gelditzen da zirkulazio libre osoan puzzleak egiten. Hala ere, aldaketa nabarmena egon da gaur bere izateko eran. Md aurkitu du laguntzat eta berarekin ama papera betetzen du guztiz. Harrituta utzi nau bere aldaketak, izan ere, aretora igotzerakoan, nire eskutik etortzen da beti eta gaurkoan, Md-ri eskua hartu eta Md-k niri eman dit eskua (esku bat nireari lotuta eta bestea M-renari lotuta). Hala ere, eta berak egunero egiten duen arren, Md-ri nire eskua askatzeko agindu dio, baina Md-k ezetz esan dio. Txundiduta utzi nau horrek, behin baino gehiagotan esan baitio berak egunero egiten duen hori. Gainontzekoa berdina izan da, zirkulazioa librea, hamaiketakoa jan eta aretora joan gara. Ondoren, aretotik jaitsi eta amantalak jantzi dizkiegu haurrei, jantokira joan eta autobusekoak prestatu ditugu eta azkenik, gurasoak bila datozenak.

Arratsaldea nahiko lasaia izan da, haurrak jolasten egon dira, eta arratsaldera tradizioa izaten ari denez, M.k eskutik heldu nau eta ipuinen txokora ipuinak kontatzera eraman nau. Ipuinak kontatzerako orduan, haur gehiago hurbiltzen dira eta haiek aukeratzen dituzten ipuinak kontatzeko eskatzen didate. Arratsaldera gertatzen den beste gauza bat, lehenengo egunetik, A. niregana hurbildu eta komunera joan nahi duen bakoitzean eskabadora zaintzeko eskatzen dit, berari segurtasun moduko bat ematen diodalarik. Ez dakit zergatik, baina lehenengo egunean niregana etortzen da egiten duen edozerren azalpenak emateko, ez da beste irakasleengana hurbiltzen niregana baizik eta horrek berezi sentiarazten nau, grazia egiten didanarekin batera, izan ere, bere azalpenak oso dibertigarriak dira askotan, baina grazia izkutatzen saiatzen naiz, berak oso serio hitz egiten nauelako beti.

HIRUGARREN EGUNA: Azaroaren 20a

Goizero bezala zirkulazio librea egin dugu haimaketakorarte. Goizetan normalean hurbiltzen zaidan haurra gaur ez zait hurbildu, pasaden astean gaixorik egon zen, eta oraindik ere ondo

ez dagoela dirudi. Beste hezitzailearengana hurbiltzen da denbora osoan, baina honek lau klasetan egon behar duenez, ez du denborarik berarekin egoteko. Nik deitu egiten diot, baina gaurkoan ez dator niregana, zerbait gertatzen zaio, gaixorik dagoela dirudi. Bere gelako neska batek pistola erraldoia ekarri du eta pistola horrek ume batzuen atentziora guztiz harrapatu du. Haur honena era harrapatu duela dirudi, eta denbora luzez pistola horrekin jolasten egon eta gero, haur hau gela bietatik korrika ikusten dut, beste haur bat bere atzetik negarrez joaten delarik (pistola bigarren haurarena da). Neska niregana etortzen da negarrez l.k ez dio pistola eman nahi eta neskak bere pistola nahi du. Orduan, haiengana hurbiltzen naiz eta era oso goxo batean l.ri pistola norena den galdetzen diot, berak neskarengana dela erantzuten dit eta berehala ematen dio. Nik oso ondo egin duela erantzuten diot eta neskari gordetzeko eskatzen diot, jolasteko denbora izan dutela eta pistola nekatuta dagoela. Orduan, l lurrera botatzen da negarrez eta inguratzen dion edonori (niri barne) ostikoka hasten zaigu. Nire tutorea ere hurbiltzen zaio baina ez dago berarekin hitz egiteko modurik, eta lurrean negarrez denbora luzez uzten dugu. Negar egiteari uzten dionean, berarengana hurbiltzen naiz berriro, haur guztiak alfonbran daude eta bera beste gelakoa da, lehen nirekin haserre zegoela esan didan arren, beste saiakera bat egiten dut. Oraingoan bere gelera nirekin joatea bakarrik onartzen du, beraz, lurretik altxatu eta nire eskua hartzen dit berarekin bere gelara joateko. Haurra negarrez zegoen bitartean zer egiteko ideiarik ez nuen arren eta modu batean gaizki sentitzen nintzen arren, saiakera horretan ondo sentitu naiz, haurra ere hobeto sentitu delako nire proposamenarekin eta lasai-lasai bere ikaskideekin utzi dudalako alfonbran. Gainontzeko goiza beti bezala joan da, fruta eta jolastokira joan gara, eguraldia gaurkoan hobea zela aprobetxatuz.

Arratsaldean unibertsitatean mintegia izan dugu.

LAUGARREN EGUNA: Azaroaren 21a

Goiza beti bezala igaro zen. Psiko gelara joan ginen, ostegunetan beti datoz poz-pozik psiko gela asko gustatzen zaielako eta hamaiketakoa hartu orduko hara abiatu ginen. Ostegunero bezala, zapatilak kendu eta gela horretako arauak gogoratzen ditugu guztiok batera (arauak barneratzen daudelako). 1. Ezin da mina eman 2. Ezin da mina jaso. Ondoren, lerroaren atzean jartzen dira eta guk hiru zenbatu arte ezin dute hesia apurtu. Harrigarria da ume batzuek arau hau errespetatzen duten bitartean, autokontrola guztiz duten bitartean, betikoek 2 zenbatzen dugunean aurrera doazela beti, baina autokontrola duten hauek beti esaten diete 3 zenbatu arte ezin dela hesia apurtu. Hesia apurtzean, niregana etorri da M. berak salto egiten duen modua niri erakustera. Md ere horretara animatu da eta ni haiekin

egon naiz salto egitera laguntzen eta animatzen haiek pozaren pozez Esti Esti mira!!! Oihukatzen zidaten bitartean. Nire ondoan, zirkuitu berri bat asmatu du D.k koltxoneta batetik eskaileretara salto egitea nik semaforo moduan jokatzen nuen bitartean (haur asko zeuden hor inguruan eta koltxoneta batetik bestera salto egitean txokatzeak min ikaragarria suerta dakioke umeari). Beraz, nire seinaleak jarraituta, salto egiten egon da, besteek ikusi dutenean oso ideia ona iruditu zaie eta berdina egin dute askotan txandak errespetatzen ez zituztela eta bata besteari joka egon direla. Hala ere, tutorea eta bion artean, azkenean, Dk asmatutako jarduera hori era ordenatu batean aurrera eramaten lortu dugu eta oso dibertigarria izan da bai umeentzat eta bai guretzat, poliki-poliki gauzetaz ohartzen direlako, eta mina ez ematearena oso kontuan izaten dutelako gehienek.

Arratsaldean ez dugu ezer berezirik egin, ipuinak kontatu eta nire ondoan egon dira ipuinak arreta osoarekin entzuten. Ondoren, pelikula bat jarri diegu eta gehienak telebistari begira egon diren arren, beste batzuk nirekin egon dira ile-apaindegietara jolasten eta ipuinak entzuten eta kontatzen (nik ere kontatzeko eskatzen diot nahi dutenean, haiei ere asko gustatzen zaielako irakaslearen papera betetzea).

BOSGARREN EGUNA: Azaroaren 22a

DBH-koak janari pilaketaren inguruko ipuin bat kontatzera etorri dira, hala ere, oso gaizki kontatu dutela eta 3 urteko haurrei kontatzeko guztiz desegokitua egon dela deritzot. Haurrek ez dute ezer ulertu, eta ipuina bukatzean ea galderarik zuten galdetu dut. Badaude ipuinaren erdian interesik ez zuten eta altxatu diren haurrak eta bazeuden beste batzuk ordea, ezer ulertu gabe ipuina bukatzerakoan eta galderarik zuten galdetzerakoan, niri begira geratu direnak, nik zerbait azalduko nien itxaronez (momentu horretan tutorea beste gelara joan behar izan da eskatu diotelako). Hala ere, tutorea bueltatu denean, neskei agur esan eta berak ipuina berriro kontatu du, haurrei guztiz egokitua den era batean. Orduan haurrek egoera pixkat hobeto ulertuta baina guztiz ulertu gabe, supermerkatu ez zirela joango erantzun zuten, haiek piszinara, parkera edota amamaren etxera joango zirela larunbatean. Tutorea eta biok begiratu egin ginen eta grazia egin zigun, oraindik ere ulertu ez zutela ikusi genuelako. Euria zela eta, goiko aretora joan gara eguraldi txarra egiten duenean beti joaten baikara hara. Bertan, umeek ez daukate jolasteko aukera askorik eta aparkalekura ematen duten leiho pilo daudenez berehala entzun dut E. niri deika, "aupitas" eskatuz eta bere amatxo eta aitatxo noiz etorriko ziren ikusiz. Hori ikustean, haur guztiek eskatu didate berdina, baina pilak agortu zaizkidala esan diet, eta horren orde besterik zerbaitetan entretenitzeko, harrapaketa jolasten hasi gara. Haurrekin inprobisatzen egon

behar zara uneoro, berehala asper daitezkeelako eta horrela egon gara denbora luzez, batek komunera joateko eskatu didan arte. Nik momentu horretan nengoen irakasleearengana joan naiz baimena eskatzera, eta berak mesede handia egingo niola esan dit, horregatik, 8 hurrekin joan naiz komunera, beti bezala, batek nahi duenean, guztiek nahi dutelako. Tontakeria bat dirudien arren, momentu hori gustatzen zait, pasilotik zehar nire ardurapean daudelako eta momentu horretan ni naizelako haien erreferente bakarra (badaude kasu gehiago eta gutxiago egiten didatenak).

Gurasoak haurrak jasotzera sartu direnean, normalean etortzen ez den aita bat agertu da lehenengoa. Bere alaba jaso eta Esti nor zen galdetu du. Nik eskua altxatu dut zalantzatan zerbait txarra esango zidanaren beldur, hala ere, aitak irribarre batez begiratu nau eta bere alaba denbora guztian nitaz hitz egiten dagoela esan dit, gorenean naukala. Momentu horretan zegoen irakasleak begiratu nau eta irribarre egin dit ere, zeinen ondo esaten zuen bitartean. Nik eskerrak eman dizkiot eta pozaren pozez gelditu naiz hurrengo gurasoei itxaroten, gauzak ondo egiten ari naizela pentsatuz eta haurrak nirekin gustura daudela konturatuz.

LAUGARREN ASTEA

Astelehena, asteartea, asteazkena eta osteguna berdin

OSTIRALA: Bosgarren eguna azaroak 29

Gogoratu ditudan horietakoa izan da gaurko eguna. Harrituta eta era berean hunkituta utzi nauen mezu batekin esnatu naiz eta berehala ikastolara joan behar izan naiz betiko moduan, ostiral bat gehiago. I.k batzuetan egiten duen arren, gaur atean nire zain itxaroten egoteak inoiz baino ilusio handiagoa egin dit, eta hori dela eta, pasillotik ikusi garenetik lurrean belauniko jarri eta nire besoak ireki ditut bera nigana korrika etorri denarekin batera, eta besarkada bat eman diogu elkarri, egun horretan jasotako besarkada politena seguruenik, eta baita ere beharrezkoena. Eguna gaizki hasi baina berehala egin du gora, hurrek goizean jasotako mezuaz ahaztea eginarazi didatelako. Oraindik asko falta den arren, praktikaldietan izan dudan egunik bereziena izan dela esatera ausartuko nintzateke. Hasieratik hurrez inguratuta egon naiz, haiekin puzzleak, eraikuntzak, ipuinak...zirkulazio librean egiten ditugun jarduerak egin ditugu baina ez da egunero dudan sentsazio berdina izan, berezia izan da, ni ere hauskorrago nengoelako beharbada, baina bat-batean hurrekin abesten hasi naiz. Zoriontasunez eta guztiz bete nauen momentua izan da hura, haiek esandako abestiak abesten eta ezagutzen nituen abestiak abestu dizkiet haiek nirekin

dantzatzearekin batera. Lelokeria bat izan daiteke, baina egun berezia egin zait hau, hurrek arazoetaz ahaztea eginarazi didatelako eta haiei esker eta haien goxotasunari eta eskatu gabe egunero baina bereziki gaur bizitako momentuari esker oso argi daukadalako duela lau urte egindako hautaketan guztiz asmatu nuela.

BOSGARREN ASTEA

LEHENENGO EGUNA: Abenduak 2

Urduritasuna nabaria izan da gelan sartu eta hurrak ikusi bezain pronto. Bihar euskararen eguna da, eta Ahotsu (Olabide Ikastolako maskota) etorriko da bisitan. Haur askok badakite Ahotsu Gorbeia mendian bizi dela eta leihora itsatsita daudela ematen du, Ahotsu ikusteko itxaropena galdu gabe. Ahotsuren inguruan egon gara hitz egiten goiz osoan, ea nik Ahotsu ezagutzen dudan, ea Ahotsuren kankak abestu ahal ditugun...Egun oso polita izan da, urduritasunarekin batera alaitasuna egon delako gelatik zehar. Egia esan, bizitako astebukaera gogor eta tristetik aste hasiera honelakoa izateak, energia eta pilak guztiz berpiztu dizkit eta hurrek haien alaitasuna eta urduritasuna zentzu batean niri transmititu dizkidatela onartu behar dut. Egun polita izan da, abestiz, euskeraz eta dantzaz josia. Hamaiketakoak jan ostean, nagusiak etorri zaizkigu bisitan (LH 5ekoak) eta haiek opari bat zuten prestatuta. Haurren ilusio aurpegia ikusteak niri ere ilusioa egin dit, eta nire haurtzaroa etorri zait burura. Nagusiekin ekintzak egitea betidanik asko gustatu zaigun zerbait dela eta horretaz gehiago baliatu beharko ginatekeela deritzot. Gure gelako haur bakoitzak, euskararen egunean eramateko nagusiek egindako txapa bat jaso du, bai eta bi irakasleok ere. Hurrek pozaren pozez jaso dute, hala ere, harremanak sendotzeko egin den ekintza honetan, haur askori lotsa eman die haiekin hitz egiteak eta soilik irekienek hitz egin dute txapak eman dizkieten nagusiekin. Niretzat ere, ikastolako beste ikasle batzuk ezagutzeko ariketa interesgarria egin zait, batzuk ezagunak nituen, udalekuetan ezagutu nituelako, baina beste batzuk nirekin hitz egiten egon dira, haurren izenen inguruan edo hurrekin batera elkarrizketa bat sortuz. Denbora gutxi egon dira, baina hurrengo egunean haiek guri dantzatu eta abestu eta guk haiei berdin egingo diegun ikasle berdinek direnez, ezagunak egingo zaizkigu eta elkarrizketa ez da hasieratik hasiko. Esan bezala, oso egun polita bizitzeko aukera izan dut eta oso pozik iritsi naiz etxera, gero eta argiagoa dut irakasle izan nahi dudala eta lanbide honek guztiz betetzen nauela.

BIGARREN EGUNA: Abenduak 3

Egun berezia gaurkoa, praktikaldiak hasi nituenetik bizi izan dudana egunik bereziena esango nuke. Euskararen eguna ospatu dugu ikastolan eta egun honekin batera, Ahotsuren bisita. Nire ikastola izandakoa den honetan, egun hau hainbat urtetan bizitzeko aukera izan dudala aitortu behar dut, hala ere, gaurko egunean beste ikuspegi guztiz desberdin batetik, irakaslearen ikuspegitik. Harrigarria, atzo urduri bazeuden gaur oihuak, barre-algarak, haurrak leku batetik bestera ezin gelditu egon dira, eta gu haiekin egun honek sortzen dituen urduritasunak gaurkoan irakaslearen azaletik biziz. Eguna berez, ez da asko aldatu ni joan nintzenetik, hala ere, Haur Hezkuntzan ez dut inoiz bizi izan, ni Olabidera DBHn iritsi bainintzen. Lehenengo orduan zirkulazio librea egin dugun arren, ez dut Ahotsuren abestia gehiagotan abestu dudana egunik gogoratzen, denbora guztian hurrek hori kantatzeko eskatu baitidate. Eta kantatzen genuela, Ahotsu ikusteko unea heldu da. Pasilora irten baino 10 minutu lehenago, haur batzuk hurbiltzen eta nire gainean jartzen hasi zaizkit, guztiz beldurtuta zeudela erakutsiz. Batek, zuzenean esan dit "Esti ni zurekin, ni zurekin" eta lepotik eskegi zait, gogor-gogor inora alde egiteko irtenbiderik gabe. Berrero ere, horrek poztu nau, nigan segurtasuna ikusten dutelako, eta era berean, nigan konfiantza dutelako. Pasillora irten eta bi gainean nituela, beste bat M. atzean jarri zait zuzenean, guztiz beldurtuta panpina pasillotik gora eta behera joaten zen bitartean. Milaka momentu etorri zaizkit burura orduan, musikari nintzela ni Ahotsuren ondoan nihoanean eta haurrak ahotsu agurtu eta era berean negar egiten zuten bitartean. Deja vu moduko bat izan da, duela 6 urte ni beste aldean nengoelako eta oraingoan irakasle moduan ikusten ari nintzelako, nire hurrekin, haiek baino gehiago disfrutatzen seguraski. Gainera, goiza bukatu eta kotxera gindoazela, DBHn lan egiten duen lagun batekin topatu naiz eta harekin hitz egiten nengoen bitartean, duela 6 urte nire tutore izan zena ikusi dut jolastokitik zehar. Ilusio handiz eta urrun zegoela agurtu dut eta bera korrika batean etorri da niregana aurpegian irribarre handia zuelarik. Ilusio handiz momentu batzuk gogoratzen egon gara, berrero ere, garai horretara bueltatuz, eta ezin zoriontsuago joan naiz etxera, goiz paregabe hori igaro ostean.

HIRUGARREN EGUNA: Abenduak 4

Gaur egun desberdina izan dugula ere esan daiteke. Goizeko lehenengo ordua berdina izaten da beti, zirkulazio librea (materialak aldatzen doaz) eta horren ostean, fruta eta gailetak. I. atean nire zain egotea goizero ohitura batean bihurtzen hasi da, eta ni pozaren pozez bera besarkatzeko prest nago beti. Gaurkoan ere, horrela izan da, I. nire zain zegoen atean besarkatzeko eta ondoren, puzzleen txokora eramateko. Puzzleen txokoan desberdinak egiten ditu, baina beti pieza guztiak nire eskuetan izatea nahi du, horrek puzzlea hobeto egiten lagunduko diolakoan. Egia esan, eta liskarrak edo beste haur batek nire beharra duenean berari bakarrik uzten diodan arren, beti itzultzen da niregana. Haur hezkuntzako

etapak duen garrantziaz konturatu naiz gaur, Haur hezkuntza ez da haurrak jolasten edo haiekin jolastera mugatzen, etapa honetan haurra harremantzen hasten da, etxetik eta familiarik kanpo beste pertsona batzuekin elkarrengaitzeko momentua hain zuzen ere. Eskolarekin lehenengo kontaktua izango duen etapa da, errealitate desberdinak ikusteko aukera, balore eta sinismen ezberdinak dituzten haurrekin elkarbanatzeko momentua, berdinekin eta hainbat urtez elkarrekin igaroko dituzten pertsonak ezagutzeko momentua. Era labur batean esanda, haurrak elkarbizitzen ikasten duen etapa da.

MINTEGIEN HAUSNARKETAK

LEHENENGO MINTEGIAREN MEMORIA

Lehenengo mintegian gertatuko zena eta bereziki sentituko nuena ez nuen batere espero. Gertakizun esanguratsutik inoiz imaginatuko nuen gaiak atera ziren, tutoreak galderak egiten zizkigun bitartean. Nire kasua lehenengoa izan zen aztertzen, kasua kontatzen nuen bitartean, eroso sentitu nintzen, azken finean, gertaera polita zen guztiakin konpartitzeko. Hala ere, gertaera azaltzen bukatu nuenean, tutorea galderen bitartez nigan zentratzea lortu zuen, besteengan zentratzea baino. Nigan jarri zuen fokoa eta horrek egoera batzuetan, deseroso sentiarazi ninduen. Familiaren gaia agertu zen eta gai hori atera bezain pronto negargura sortu zitzaidan, familia baita niri hauskorren sentiarazten nauena. Nire familia ikutzen dutenean edo familiaz hitz egiteak momentuaren arabera oso delikatu dela deritzot. Hala ere, ez nintzen erasotua edo gaizki sentitu, tutoreak kontu handiarekin ikutzen baititu gai horiek.

Nire gertakizunaren ostean, beste ikaskide batena etorri zen. Egia da, gertakizun horretarik ondoren aterako zena ez nuela batere espero, eta nire egoera ikusita tentsioan egon nintzen berak hitz egin zuen ia momentu guztian. Egia da, erlajatu egin nintzela, modu batean niri iritsiko ez zitzaidalako uste nuelako, baina azkenean egoerak ere ukitu ninduen. Gertaera batetik galderak egin ostean hainbeste ateratzea, ez nuen batere espero, eta horregatik sabelean zerbait mugitu zitzaidanaren sentzazioarekin joan nintzen etxera. Desberdin atera nintzela esan daiteke, sentzazioa arraroa izan zen, baina elkarrizketa hori inoiz izan dudan elkarrizketarik intentsoenatarikoa izan zela esan dezaket. Urduritasuna, tentsioa, nahasmena... sentitu nituen, eta sentzazio horrekin atera nintzen.

BIGARREN MINTEGIAREN MEMORIA

Bigarren mintegia gogorra iruditu zitzaidan, oraindik gogoratzea ere tripak nahasten dizkit. Lehendabizi, edo nire lehen sentimendua lotsa izan zen eta deserosotasuna, tutoreak Estitxu deitu ninduelako, eta txikitatik gorroto dudan izena delako. Ez dakit ondo zergatik eman zidan lotsa egoera horrek, baina nire masailak gorri-gorri sentitu nituen, eta ez zitzaidan egoera hori gustatu, ez ezergatik, baizik eta lotsa ematen didan bakoitzean gorri jartzeak ez zaidalako gustatzen. Ondoren, ikaskide batek bere egoera azaldu zuen, berriro ere orduan gertatuko zena imaginatu ere egin gabe. Gertakaria entzun ostean, tutoreak galderak egin zizkion, hala ere, ezer gutxi lortu zuen hasieran. Elkar ulertzen ez zirela, edo ulertu nahi ez zutela iruditu zitzaidan, eta horrek momentu batzuetan, tentsioan egotea sortu zuen nigan, pixkat deseroso. Hala ere, eta galderak eginez (tutoreak badaki nola egin, eta azkenean lortzen du beti) ikaskidea pixkat irekitzea lortu zuen, poliki-poliki, baina kriston egoera bizi izan genuen. Oso istorio gogorra iruditu zitzaidan, eta niri, ezer berdinek ez dudan arren, guztiz mugitu ninduen. Malko batzuk jauzi zitzaizkidan, bera horrela ikusteaz gain, berak esaten zuenaren harira, oso gogorra iruditu zitzaidan, egoeraz aparte, berak erabiltzen zituen hitzak. Guztiz mugituta joan nintzen entsaiora, sentsazio oso arraro batekin, tripan zerbait nuen sentsazioarekin alegia. Harrigarria iruditzen zait tutoreak lortzen duena, ez dugulako batere espero, baina era batean edo bestean, guztioi mugituak uzten digutelako harekin izaten ditugun mintegiak.

HIRUGARREN MINTEGIAREN MEMORIA

Mintegira heldu eta ohiko moduan hitz egiten hasi ginen. Ondoren, gutako ikaskide bati bere gertaera esanguratsua kontatzea tokatu zitzaion, bera baitzen oraindik kontatu ez zuen bakarria. Egia esan, nire istorioa kontatzeko gogoak nituela esan behar dut, izan ere, lehenengo egunetik ikusi dudan gertakizuna da eta oraindik ez dakit nola kudeatu. Hala ere, berak kontatu behar zuela uste dut, orainarte guztiek momentu hori bizitzeko aukera izan dugulako, eta negar egitea sortarazten digun arren, nik kontatu nuenean liberazio sentimendu eta azken finean kontatu eta gero hobeto sentiarazi ninduen egoerak. Beraz, ikaskidearen gertaera esanguratsua entzuten egon ginen, bai eta ondoren tutorearen galderen bitartez beraren inguruan zerbait gehiago jakin ere. Mintegi honetan konturatu naiz gure gertaera esanguratsuek gurekin harreman estua dutela, hau da, zerbaitengatik erabakitzen dugula horretan zentratzea eta ez beste gauza batetan, gure burua bertan islatuta ikusten dugulako. Ikaskideak bere istorioa kontatu ondoren, eta tutoreak berriro hausnarketara bideratu ondoren, bideoa bat jarri digu. Bideoak lehenengo bide bat erakusten zigun musika polit eta alai batekin, ondoren beste bide bat beldurrezko eta intrigazko musika batekin, bide ezberdina zela pentsatzera ere eramán gintuena. Azkenean, tutoreak bide

berdinak zirela azaldu zigun, harrigarria bazirudien ere, musika desberdinek zeharo gure ikuspegia aldatzen zutela azalduz.

LAUGARREN MINTEGIAREN MEMORIA

Lur jota oso egun txarra eta nahiz eta egun osoan negar egiteko gogorik ez eduki (harrituta nengoelako izan daiteke) unibertsitatera heldu eta negar egiteko gogoak sartu zitzaizkidan bat-batean, tutorea ikusterakoan bereziki. Iritsi eta berehala, beilatokira joan behar izan nintzen. Oso lagun baten amama gau horretan bertan hil egin zela jakinarazi zigun lagunak goiz goizetik, eta horrek harritu ninduen arren, ez zen hori bakarrik izan, data konkretuki utzi ninduen guztiz izoztuta. Duela sei urte nire lehengusua hil eta egun horretan bertan izan zenez, sentimendu asko elkartu zitzaizkidan. Belatoki berdinean izan zen, gela berdinean, eta nire lagunaren ama ikusterakoan (familiakoak dira ia-ia) besarkada bat eman nion, nire besarkadarekin batera negar batean jarri zelarik. Bertan atera zitzaizkidan malkoak, izeba modukoa dudan hori nire besoetan negarrez ikusita eta ondoren ere, ama eta bera besarkatzen ikusteak, guztiz apurtu ninduen. Bertan egon ginen 30 minutuak, luzeak egin zitzaizkidan, oso luzeak, lagunekin zertaz hitz egin ez genekien ere, familia guztiz atsekabetuta...Ondoren, tutoretzara bueltatu nintzen, hitz egiteko gogoekin eta sabelean zerbait sumatzen nuelarik. Konfiantzazko giroan soilik kontatu dudana istorioa da nire lehengusuarena eta kontatzeko nahia nuela ikusi nuen momentu horretan, guztiak erne zeudelarik. Negarra baino ez zitzaidan ateratzen, oso data txarra da familiarentzat eta gertaera honekin are txarragoa bihurtu delako. Hala ere, horretaz hitz egiterakoan, liberatuta sentitu nintzela esan dezaket, hitz egiteko beharra nuelako, eta haiek hitz egiten utzi zidatelako. Ondoren, beste ikaskide batek bere aitonaren inguruan hitz egin zuen, beti esaten ziola maite zuela eta ea horrek zergatia zuen galdetu zuen. Ni ez nengoen batere ondo, eta aitona-amonen kontua barrurarte ukitzen didan kontua da, beraz berriro ekin nion negarrari, azken finean eta bi aititeak inoiz ezagutu ez ditudan arren, bi familiekin beti oso gertuko harremana izan dudala esan dezaket, eta oso harro gainera, eta bi amamekin betidanik denbora asko pasa dugu biloba guztiok (bai amaren partetik zein aitaren partetik) beraz, amamen aurpegiak etorri zitzaizkidan burura, eta noizbait haien falta somatuko dudala pentsatzeak guztiz beldurtzen nau.

Animalia, lorea eta harriaren ariketa ekarri genuen gogora. Ni izurdea aukeratu nuen, eta berriro hautaketa hori tutoreari gogorarazi nionean barrez hasi zen. Izurdeek ea zer egiten duten galdetu zidan orduan, beti pozik zeudela ematen zuela esan zidan, ni bezala. Horrek guztiz desegonkortzen nau, betidanik pentsatu izan dudalako irribarretsuz itatez ona zela, eta betidanik irribarre hori ez galtzeko esan didatelako. Orduan, 21 urte eta gero

tutoreak irribarre egitea beti ez dela hain ona esan zidanean, desegonkortu ninduen guztiz, inoiz pentsatu ez ditudan gauzetan pentsarazten dit tutoreak.

BOSGARREN MINTEGIAREN MEMORIA

Mintegia nahiko ondo hasi zela esan dezaket. Oso giro ona dagoenez, denon artean hitz egiten egon ginen hasieran, eta ondoren, gertaera esanguratsuak konpartitzen hasi ginen.

Lehenengoa kontaktzen ni izan nintzen, lehenengo astetik gertatzen zen gertaera partekatu nuen, hala ere, momentu horretan kezka gutxi sorrarazten zuen nigan, izan ere, egoera askoz ere apalagoa da gaur egun. Guztiek gure egoera partekatu genuenean, tutoreak egoera horrek gudan zer sorrarazten zuen galdetu zigun, eta nik nekea erantzun nion. Hala ere, berak gehiago insistitu zuen, eta pixkat zirikatzen egon zen, egoera horren aurrean amorrua sentitzen nuela aitortu nuen arte. Egia esan, egoera horretan haserretzearekin batera, deseroso sentitu nintzela aitortu behar dut, izan ere, amorru handia ematen dit jendeak haserretzen ez naizela edo inoiz haserre ikusi ez nauela esaten didanean. Hori esatean, barea naizela eta izaerarik ez dudala ulertarazten dit, baina ni ez naiz horrelakoa, haserretzen naiz, asko gainera, baina mintegi horiek inoiz ez didate haserrarazi. Hala ere, gogoratzen dut nire aurpegia nola zihoan gorritzen eta bihotza gero eta azkarrago somatzen nuen, haserretzen naizenean bezala.

Mintegiaren bigarren zatian haserrea poliki-poliki baretuz joan zitzaidan, dinamika oso interesgarria bat egin baikenuen. Lehendabizi, eta izotza apurtzeko kurtso hasieran egin genuen dinamika bat errepikatu genuen, baina konfiantza giro batean geundenez (Edo hala sentitzen naiz ni behintzat), erraza egin zitzaidan ekintza hori aurrera eramatea. Behin horrekin bukatuta, dinamikara jo genuen. Dinamika psikodramaren inguruan zen, eta banan-banan tabernako zerbitzariak ginela antzeztu behar izan genuen. Lehenengoa ni, tabernako zerbitzari gisa bezero nahiko zalapartatsuak eta lotsagabeak jasan behar izan nituela, egoera horretan bertan egongo balitz bezala jokatu nuela uste dut. Irribarre batekin guztiei kasu egiten saiatu nintzen, ezinezkoa bazen ere (denak zeuden aldi berean hitz egiten, eta egoera errealean ezin zaie guztiei batera kasu egin). Hala ere, eta publikoaren aurrean lan eginez gero errespetagarria eta atsegina izatearen aldekoa naizenez, eta nirekin horrelakoak ez direnean asko kexatzen naizenez, berdina egiten saiatu nintzen, azkenean estresatu banintzen ere. Hiru pertsonen mandatuak entzutea eta gainera oso modu txarrean, ez ninduten batere ondo sentiarazi egin, nireganako gaizki hitz egiteak txikitatik gorroto izan ditudalako, eta ezin dudalako hori jasan, urduritasuna sortarazten dit eta urduritasunaren

ondoren, haserrea. Hala ere, goian azaldu dudan moduan, ez nuen nahi nire haserrea azalaraztea, publiko baten aurrean eta nire lanpostuan, errespetua izan behar dudalako edozerren gainera. Nire zatia bukatzerakoan, beste bi ikaskideak eta tutorea ezetz esandakoa baina baietz pentsatutakoarekin hurbildu ziren niregana, banan-banan haien ustez zer pentsatu nuena ozen esanez. Horietako esaldi bat gogoratzen dut bereziki, ez dakit ondo zergatik, baina esaldietatik soilik hori gogoratzen dut oraingoan ere, zer esango didate nire buruzagiek atsegina ez banaiz? Imaginatzen dut horrekin gelditu nintzela uste dudana baino gehiago inporta zaidalako jendeak nitaz zer pentsatzen duena, orain arte ezer gutxi inporta zitzaidala uste izan badut ere. Harrigarria da, eta mintegien memorian azalarazten dudan zerbait da, nola aldatu zaidan gauza batzuen ikusteko era mintegi hauetara natorrenetik, betidanik zerbait ona zena pentsatu eta ikusarazi izan didaten zerbait zalantzan jartzea. Dramatizazioak jarraitu zuen, eta beste bi ikaskideek nire prozesu berdina jarraitu zuten. Lehenengoaren txandan zer pentsatzen zuenaren inguruan, ez nuen asko esan, izan ere, dinamikan guztiz sartuta ez nengoela uste dut, eta ondorioz, ez nekien ondo zer esan. Hala ere, bigarrenaren txanda iritsi zenean, eta bere antzezpena bukatu zenean, zerbait gehiago esatera animatu nintzen, horretan bai sartu nintzelako guztiz, eta dinamikaren bigarren zatian eroso sentitzen hasi nintzelako.

SEIGARREN MEMORIAREN HAUSNARKETA

Mintegia tutoreak gomendatutako Psikologiaren liburu batzuekin hasi zen, Melanie Klein eta Winnicott autoreen Garapenaren psikologia eta La psicología de las relaciones objetales izendaturikoak hain zuzen. Ondoren, binkuluen inguruan hitz egiten hasi ginen, Imanolek guk sortuko ditugun binkuluak berdinak izango ez direla esan zigun, haurrak ez baitira berdinak izango. Hori dela eta, etapa bakoitzean eta gelaran arabera, binkuluak zeharo desberdinak izango direla. Horrez gain, transferentziaren inguruan ere hitz egin genuen berriro, eta honen inguruan, haurren transferentzia gure kontratransferentziaren arabera erabiltzen dugula esan zigun tutoreak, hau da, guran haurrek eragindakoa erabiltzen dugula guk haiek erantzuten dutenaren arabera. Horren harira, ikasle moduan nolakoak garen azaldu zigun: oralak (eman, eman, eman...) denbora guztian eskatzen dutenak 0-1 urte, analak (kaka botatzen dizutenak) 1-4 urte eta azkenik falikoak (oztopoak jartzen dizkiote irakasleari, zaildu egiten diote bidea). Hala ere, izateko era hau, ez da soilik hurrekin gertatzen, nagusiak ere segun nola sentitzen garen, momentuaren arabera, fase batean edo bestean egon gaiteke. Mintegi honetan, tutoreak aurreko mintegiko memoria idatzita eramatea eskatu zigun, eta hirurok hala egin genuen, mintegi honetan hausnarketa horren zati bat ozen irakurri behar izan genuelarik. Konkretuki esanda, aurreko egunean egindako psikodramako ariketa irakurtzea eskatu zigun irakasleak, eta banan-banan horri

ekin genion. Nire txanda iritsi zenean irakurtzen hasi nintzen, hausnarketa eskasa egin nuela pentsatzen nuen bitartean. Nire ezusterako, irakurtzen bukatu nuenean, irakasleak lan sakona egin nuela esan zidan, deskribapen hutsa egin baino, horren inguruan ere hausnarketa egin nuela. Hitz horiek poztu ninduten bai eta ziurtasuna eman ere, hasieran burutatakoaz batere harro ez bainengoen. Hala ere, nire lana baloratua izan zela sentitu nuen orduan, mintegiaren hausnarketek bere lana dutelako atzean, eta balorazio on batek lanean jarraitzea bultzatzen duelako.

Mintegiaren beste zati batean, konparaketa bat egin zigun irakasleak, baina guk erantzuna ondo ez genekenez, niri altxatzea eskatu zidan. Orduan, modelo batzuk ginela antzeztu genuen, eta irakasleak hurrengo galdera bota zigun, gizarte batean eta gu biok modeloak bagina, nork izango luke galtzeko gehiago? Momentu horretan, niri berak izango zuela okurritu zitzaidan, hala ere, ni berez gorputz “hobea” edo gizartean hobeto ikusten den gorputza nuenez, nik izango nukeela galtzeko gehiago esan zigun, ni hurbiltzen bainintzen gehiago gizarteak ondo ikusten duen gorputzera, eta ondorioz, akats bat izatekotan niri kritikatuko nindutela gehiago. Horren inguruan ere, hausnarketarako hitz batzuk esan zituen, oraindik ere gogoratzen ditudanak: “El que se crea superior a la hora de defraudar va a perder más que el que no se cree nada”.

Horrez gain, mintegi honetan ere ikasi dudana eta gaur egun praktikara eramaten saiatzen naizen gauza oso garrantzitsu bat esan zigun, niretzat behintzat nire bizitzan asko suposatu duena. Bere hitzetan, zerbait gertatzen zaigunean, laguntza eskatzen dugunean eta laguntza hori ematen ez digutenean, pertsona horrekin haserretu gaitzkeela esan zigun. Aldiz, laguntza eskatzen ez badugu eta laguntzen ez digutenean, ezin gara beste pertsonarekin haserretu gurekin baizik, laguntza eskatzeko kapazak ez baikara. Hitz horiek barrurarte sartu zitzaizkidan, ordurarte askotan egiten nuen gauza bat zelako, laguntza eskatu gabe beste pertsonarekin haserretzea laguntza ematen ez zidalako. Harrez geroztik, eta hitz horiei esker, nire jarrera horren inguruan saiatzen hasia naizela esan behar dut, edo hori uste dut behintzat, laguntza sarriago eskatzen baitut orain arazo baten aurrean.

ZAZPIGARREN MEMORIAREN HAUSNARKETA

Mintegia nahiko triste hasi genuela esan daiteke. Izan ere, praktiken azkenengo eguna izan zen hura, eta egun osoan negar egiteko gogoia eduki izan ez nuen arren, berriro ere mintegira iritsi eta negargura etorri zitzaidan. Gainera, horren inguruan hitz egiten egon ginen, eta horrek ez zuen egoera batere hobetu, irakasleak ez dakit zergatik baina negar egiteko eta barruan daukadana eskatzeko gogoia pizten dit. Gai horrek Irabazi eta Galdu

hitzei buruz hitz egitera eraman gintuen, ea praktika horiek eta gero zer zen irabazi eta zer galdu genuena. Ondoren, prender/desprender hitzekin berdina egin genuen, tutoreak bazekien zer nahi zuen lortu horrekin eta guk jarraian ikusiko genuen. Hitz horien inguruan pixkat hitz egin eta gero, beste saio batean egindako Psikodrama ariketa bat egingo genuela esan zigun ondoren, psoliloquio/doblaje hitzak berriro ere erabiliko genituela azalduz. Kasu honetan, eta ikaskide batek eta biok egingo genuela aprobaxatuz (besteak ez zeukan egun ona), haurraren ikastolako lehenengo eguna antzeztu behar izan genuen (alaba/ama). Antzezpenean ni izan nintzen haurra antzeztu zuen lehena, bestea ama moduan jardun zuelarik; gosaria, portalean eta ikastolako atean banatzen ziren hiru eszena antzeztu genituen, bakoitza bere paperean guztiz sartuta zegoelarik. Haur moduan lehenengo bi egoeretan poza sentitzen banuen ere, ikastolara hurbiltzen gindoazen heinean beldur pixka bat sartu zitzaidala aitortu behar dut, amaren eskua gogorra heltzea eragin zuena. Berari ama moduan ere, berdina gertatu zitzaiola uste dut, berak ere nire eskua askatzen ez zuelako.

Bigarren eszenan irakaslea eta ama antzeztu behar izan genituen, beste ikaskidea ama moduan ikastolara haurra jasotzera etortzen zelarik, eta kasu honetan, ni irakasle moduan jardun nuelarik. Bere pentsamendua eta baita nirea amaren papera egin nuenean, berdintsua izan zen, haurrak faltan botako gintuen, maite gaituen, ea gutaz gogoratu zen. Guk behintzat, ikusteko irrikitan eta dena ondo joango zen jakin nahi genuen. Nire ikaskidea ama izan zenean, haurrak berarekin bueltatu nahi ez zuela esan nion (tutoreak hala esan zidan), oso gustura zegoela jolasten eta ez zela ezta ama etorri zenaz ere ohartu egin. Dinamikarekin bukatu genuenean, atxikimendu moten inguruan hitz egiten egon ginen, bai eta Bion-ek bere liburuetakoa batean izendatutako amen ereduaren inguruan ere. Beste behin ere, gela horretan sortutakoaren ondorioz, nire ikuspegiari buelta bat emanez, hausnarketa berri bati hasiera emanez, beste aste batetan ere ostiral horretan gela horretan bizitakoa, nire barnean zerbait berria eraginez.

ZORTZIGARREN MEMORIAREN HAUSNARKETA

Azkenengo mintegia azkenengoa izango zenaren ideia gutxirekin sartu ginen gelan. Hamar mintegi egitekoak ginela pentsatuz, tutoreak gure egoera eta lanen inguruan genuen larritasuna ikusita, gure azkenengo mintegia izatea proposatu zigun, eta guk baietza eman genion. Ez dakit horren inguruan pentsatzen hasi eta horregatik izango zen, baina bat-batean negar egiteko gogo izugarriak etorri zitzaizkidan. Betidanik gertatu izan zaidan moduan, esan eta egin, negarrez hasi nintzen, egoera hori, ostiralero errepikatzen genuen egoera hori berriro gertatuko ez zela imaginatze hutsak, triste jartzen ninduelako. Mintegi

horiek ihesbidetzat balio izan zaizkit askotan, ostiral arratsaldetan unibertsitatean 2 orduz egoteak aspergarria zirudien arren, aste osoko karga emozionala askatzeko balio izan zait niri, babesleku moduan neukan, babestua sentitzen bainintzen pertsona horien artean. Gauzak horrela, eta ni negarrez nengoela ikusi nindutenean, tutoreak zergatia galdetu zidan, beti bezala kontu handiz, baina nik ezin nion erantzun bakar bat eman, pena ematen zidan, inoiz imaginatu ezin nuena gertatu zelako ostiral horietan, eta ondo sentitzen nintzelako, eroso, esan bezala, aste osokoa askotan bertan botatzen nuelako, mintegi horietan epaitua sentitzen ez nintzelako. Ondoren, eta negargura pasa zitzaidanean, teoria apur batekin hasi ginen, talde motekin hain zuzen ere, talde anal, oral eta falikoaren inguruan. Horren inguruan ere, mintegi horietan zehar tutoreak ea gure artean nor zen oralena galdetu zigun, eta guk erantzuna argi ez genuenez, nor seguru izan ez zela galdetu zigun orduan. Nik banekin ni izan nintzela, izan ere, beste bi ikaskidekin konparatuz, nik ez dut hainbeste hitz egiten, edo ez dut denbora guztian galdetzeko behar hori. Beraz, ni nintzela erantzun nuen, oso argi baineukan hiruren artean nireak izan baitzirela gutxiengo aportazioak. Teoriarekin bukatu genuenean, gure lanen inguruan hitz egiten hasi ginen, eta ondoren agur esateko unea iritsi zen. Erasmusean egon nintzenetik, nire emozioak sarriago eta azkarrago erakusten ditudala esan daiteke, eta agur esateak triste jartzen nauenez eta saio horietan oso gustura egon nintzenez, berriro ere triste eta negar egiteko gogoia sartu zitzaidan. Tutoreak berari zerbait esateko eskatu zigun, baina nire negarrak (beti bezala) ez zidan eskerrik asko baino ezer gehiagorik esaten utzi, berdina gertatu zitzaion beste ikaskide bati, berari ere negarra sartu baitzitzaion. Ondoren tutoreak banan-banan guri hitz batzuk eskaini zizkigun, betiko moduan pentsatzera eraman ninduena, baina ostiralero egindako mintegi horiekin batera betirako eskertua egongo naizena.